

aikor.

TOKIKOM

2025eko maiatza - #257

Hori Bai



HORI BAI GAZTETXEA

60 urtez gazte

ONDO PASA DERIOKO JAİETAN!



kafetegia-hamburgeria
pozgarri

Gernikako Arbola, 4 (DERIO)
94 454 35 99

**ZIRIKADA
JATETXEA**

www.zirikadaderio.com
94 454 50 45
Gatzelumendi Plaza, 1 DERIO

Liliak
Loradenda

Erkontzetarako lore arteko
azken tendentziak eta klasikoak

94 454 12 23
liliakloradenda.com
Erdiko kalea, 2 · DERIO

TXEPETXA aek ■ euskaltegia

Ondo pasa jaietan!
Eutsi euskaraz berba
egiteko konpromisoari

aek
Gorbea kalea, 5
48160 Derio
944 543 967
607 59 87 94
txepetxa@aek.eus

Arteaga ESTANKOA

Mungialde etorbidea, 12 - 48160 Derio
Tel: 94 454 15 41
estancoderio@gmail.com

Zorionak eta
urte berri on

ed
electricidad derio elektrizitatea
Koadro elektrikoak • Instalazioak • Mantentzea

Proiektuak eta
material elektrikoaren salmenta

Ugaldeguren ind. 1, 5 pab. 12 B DERIO
t: 944 543 148

tximintx
KOMUNITATEA

**DERIOZTARTU
ZAITEZIE!**

LAINOMENDI

Gora jaiak!
Aurten Lainomendiren 35. urteurrena urrian ospatuko dugu!

Maiatzak 10 · 19:00 · Dantza-poteoa, Piperdun eta Kukudantza taldeekin
Maiatzak 11 · 18:00 · Dantza-erakustaldia, Derioko enparantzan

DERIO
LAINOMENDI
DERIO
DERIO
jai BATZORDEA

aikor.

Argitaratzailea:

TOTOAN Txorierriko Euskara Elkartearen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Altzora, Darabilgu eta Tximintx komunitatea)

Zuzendaria:

Xabier Goienetxe

Erredakzio burua:

Itxaso Marina

Maketatzailea:

Aner Mentxaka

Publizitatea:

Ruth Bilbao (688 782 642)

Zuzentzaileak:

Iñaki Astorkiza
Oihana Astobieta

Kolaboratzaileak:

Toti Martinez de Lezea
Jon Legarreta
Idoia Andres
Juanjo Ortiz
Joanes Camara
Maria Garabieta
@txiribita_mundi
Iñaki Olabarrieta
Jose Angel Mentxaka

Inprimategia:

Gertu

Banaketa:

Eragin

Ale kopurua:

8.000

Lege gordailua:

BI 137-02 ISSN 1578-9322

aikortxori@aikor.com

688 864 135 · 747 406 561

aikor aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik.

CC BY-SA 3.0

Aitortu - Partekatu Berdin 3.0 Moldatu gabea



SUMARIOA

- 4 Iritzia
- 5 Gutuna
- 5 Berri laburrak
- 10 **Igor Garcia**
- 12 **Hernando Kioskoa**
- 14 Gurean izan da
Antonio Turiel Martínez
- 16 **Lezamako Kooperatiba**
- 18 **Txoriberri**
- 20 **Hori Bai Gaztetxea**
- 24 **Derioko jaiak**
- 28 **Errenta euskaraz**
- 30 EMAUS
- 31 Ilargiaren aldiak
Emakumeen osasun integrala
- 32 Menditik Patxadaz
Txorierrri iparraldetik (I)
- 34 Herbarioa
Zolda-belarra (II)
- 36 Sukaldaritza
- 37 Denbora-pasak
- 38 Maiatzeko agenda

DIRUZ LAGUNDUTAKO ALDIZKARIA



IRITZIA

Guggenheim Urdaibai EZ

Ez da eztabaidatzen Bilboko Guggenheim museoaren edertasun arkitektonikoa, nahiz eta barruan ikusgai dauden artelanak gustu kontua izan. Orain, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak Urdaibaiko Biosfera Erreserban bigarren Guggenheim bat eraikitzea proposatu dute, lehenengotik 40 kilometro baino gutxiagora, eta horrek ez du bakarrik ekarriko Euskal Ogasun Publikotik, hau da, gure poltsi-

kotik, milioika euro ordaintzea, baizik eta azpiegiturak, errepideak, poluzioa eta ustezko erakarpenturistiko bat ere ekarriko ditu, Euskal Herriko hezegune garrantzitsuenak eta hegazti migratzaileen eremu garrantzitsuak inolaz ere behar ez dituztenak. Eztabaida horren aurrean, gure ondasunen administratzaileek kontsulta publiko bat planteatu dute, eta Lehendakari Agirre Fundazioak eta Columbiako Unibertsitateak (AEB) az-

TOTI MARTINEZ DE LEZEA
Idazlea



tertuko dute. Lehena gobernuan dagoen alderdiaren mendekoa da, eta bigarrena unibertsitate pribatu bat da, Salomon R. Guggenheim Fundazioaren partaidetzarekin. Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak milioika ordaintzen dizkiote bere izena erabiltzeagatik, funts artistikoak edukitzeagatik eta bilduma propiora bideratutako obra erosteagatik. Negozio oso bat, ikus daitekeenez. Guggenheim Urdaibai EZ.

2024 YR4 asteroidea. Nork salbatuko gaitu, Bruce Willis ez badago?

Orain dela hilabete batzuk, 2024ko abenduaren 27an, Txileko ATLAS estazioak (Asteroideen Inpaktuaren Azken Alerta Sistema) 2024 YR4 asteroidea aurkitu zuen Lurrarako bidean. Horren ondorioz, NBEk Seguritasun Planetarioko Protokoloa lehen aldiz aktibatu zuen. Albistearen entzun eta gero, berehala datorkigu burura *Armageddon* filma, Bruce Willisek Lurra salbatuz...

Lurraren historian zehar milaka meteoritok hartu dute lur. Ezagunena da dinosauroak (eta beste espezie asko ere) desagerrarazi zituen orain dela 66 milioi urte, Mexikoko Yucatan penintsulan jausi zenean. Mexikoko asteroidearen aldean (10 km), 2024 YR4 asteroidea (50-90 metro ingurukoa) txikia da, baina handia da, 2013ko otsailean Errusiako Cheliabinsk herrian jausi

zen meteoroarekin alderatzen badugu.

Astronomoen lehen kalkuluen arabera, asteroideak 2032an Lurraren kontra talka egiteko aukera zegoen, baina azken hila-bete hauetan probabilitatea aldatuz joan da, eta otsailaren erdialdean % 3koa zen. Gaur egun, aldiz, badakigu probabilitatea zero dela. Hala ere, esan beharra dago Ilargiaren kontra talka egiteko aukera handitu egin dela. Asteroide honekin behintzat lasai egon gaitezke, ez baitu Lurra joko; baina Lurraren kontra talka egiteko aukera askoz handiagoa balitz, demagun % 90ekoa, talka ekiditeko aukerarik izango genuke? Erantzuna baiezkoa da eta NASAko DART misioak eman zigun 2022an, Dimorphos asteroidearen kontra talka egin eta bere norabidea eta abiadura aldatu ondoren. Beraz, gizakia teknologikoki prest dago horrelako gertakizun ba-

ten aurrean erantzuna emateko.

DART misioaren aurrekontua 300 milioi eurokoa izan zen. Dirutza dirudi, baina hasierako lerroetan aipatutako filmaren aurrekontuarekin alderatuta, merkea dela esan genezake, garaiko 200 milioi euro izan zirelako. Eta askoz merkeagoa da futbol-talde indartsuen urteko aurrekontuarekin konparatzen badugu! Hortaz, ondo baderitzogu filmak ikusteari edo futbol-partidak ikustera joateari, egokitza jo beharko genuke misio espazialeko gobernuaren laguntza eskatzea. Pentsa dezagun zientzian eta teknologian gastatzen den euro bakoitza gizartera gutxienez bikoiztuta bueltatzen dela. Lurra deseusteko arriskua zerutik etor daiteke, eta horregatik teknologikoki prest egon behar gara, guk geuk Lurra lehenago suntsitu ez badugu, behintzat.

JON LEGARRETA
Fisika Zientzietan doktorea



Kezkaren bat adierazi nahi baduzu edo zerbait esateko baduzu, gutuna idatzi ahal duzu, eta aikortxori@aikor.com helbide elektronikora bidali.

GUTUNA

Beldurraren negozioa

Azken egunotan, larrialdi posibleetarako prestatzeko eskatu digute, gure etxeetan biziraupen-kit bat sortuz. Horretarako, ura, elikagaiak eta beste elementu batzuk biltegitratzea gomendatu digute, egoera kritikoei aurre egiteko.

Gertaera honek armamentu-industriaren jardueraren gorakadarekin bat egiten du, Ukrainako eta Gazako gatazkek bultzatuta, beste askoren artean. Gatazka horiek sufrimendu humano

handia eragiteaz gain, etekin ekonomiko handiak sortzen dizkiote industria horri, eta interes horiek herritarren eskubide eta ongizatearen gainetik jartzen dira. Egoera hori bereziki larria da herrialde pobreetan, gatazka armatuen eragin handiena jasaten baitute.

Horregatik, bakea eta giza eskubi-deen errespetua interes ekonomikoen gainetik jarriko dituzten politikak eskatu behar ditugu, multinazionalen onuraren aurretik.

JONE ETXEBARRIA URIARTE

BERRI LABURRAK



120 motozalek hitzordua izan zuten Loium

Apirilaren 12an, Loiu XII. Motor Kontzentrazioa egin zen Zabaloetxen, Txori Bikers herriko motozaleen taldeak antolatuta. Eguraldia lagun izan zen goizean, eta Loium 120 motozale batu ziren Txori Bikersek prestatutako ekintzetan parte hartzeko. Besteak beste, errepidera atera ziren eta ibilbidea egin zuten ingurutik, eta hamaiketako dastatu ahal izan zuten herriko ostalaritza-establezimendubatean. Taberna-ibilbidea ere egin zuten, eta frontoian paella erraldoi eta goxo bat gozatu ahal izan zuten.

Eguraldiak, hala ere, okerrera egin zuen arratsaldean, eta bertan behera utzi behar izan zituzten joko moteroak. Nolanahi ere, zozketak egin zituzten, eta kontzertua

ere izan zen. Musika-taldeak udaletxeko arkupean topatu zuten euritik babesteko gunea, eta plazan karpa batzuk ipini ziren ikusleentzat. Dena dela, Txori Bikers taldeak balorazio positiboa egin du ekintzari eta parte-hartzeari buruz, eta azpimarratu du motor kontzentrazioa oso arrakastatsua izaten dela eta antolakuntza aldetik oso ahalegin handia egiten dela, ekintza guztiak ondo ateratzeko eta parte-hartzaileak gustura sentitzeko. Aurten, esaterako, gehienbat Bizkaiko motozaleak batu dira Loium, baina Kantabriatik etorritakoak ere egon dira. Gainera, motozaleak ez ezik, herritar asko ere hurbiltzen dira egunean zehar egiten diren ekintzetara, erakargarriak eta dibertigarriak izaten dira eta.

Euskararen Erreferentzia Corpusean hartu du parte Aikor aldizkariak

Euskararen Erreferentzia Corpusa (EEC) sortu du Euskaltzaindiak. Helburua da EEC hizkuntza-, literatura- edo ikerketa-xedeetarako corpus estandar edo erreferente moduan erabiltzea, eta bere baitan azken 25 urteetako testuak jaso dira. Corpus irekia eta kolektiboa da, Euskaltzaindiak Euskal Herriko 68 erakunde pribatu eta publikorekin egin duelako. Haien artean daude gizarte-eragile asko eta hedabide nagusiak. AIKOR aldizkariak ere hartu du parte.

EEC duela lau urte ipini zuen martxan Euskaltzaindiak. Izan ere, corpus handiagoa eta orekatuagoa izatea beharrezkotzat jo zuen, euskararen eguneroko erabilera eza-gutzeko eta hizkuntza-teknologiek ekartzen dituzten erronkei aurre egiteko. EECn 123.124 dokumentu, 154,21 milioi testu-hitz eta 129.817 lema bildu dira, zeinak 2000. urte-tik 2023. urtera bitartean euskaraz idatzitako edo ekoiztutako testuetatik hartu baitira. Testuak lematizatu eta sailkatu dira, lema, forma eta kategoria gramatikalen bidezko kontsultak egin ahal izateko. EEC <https://eec.euskaltzaindia.eus> webgunean dago eskuragarri. ECC urtero eguneratuko da, testuak gehitzeko, hutsuneak osatzeko eta ahalik eta erreferentzialtasunik handiena lortzeko.

ECC euskaraz idatzitako testuetan oinarrituta dago, batez ere bertsio elektronikoetan, eta momentuz ahozko transkripzioerik ez badu ere, ahozkorako prestatutakoa biltzen du, hala nola telesailak, filmak eta gidoiak. Testuen % 48 liburuetatik hartu da; % 48, aldizkako argitalpenetik –AIKOR, haien artean–; eta % 4, sarerako berariaz sortutako materialetik. Testuak bi sailetan sailkatu dira: fikzioa (% 25) eta ez fikzioa (% 75).

Alex Txikon Lauroetan

Maiatzaren 9an, 19:30ean, *Mendi biluzia* dokumentala emango da Lau-roetako ermitan, Loian. Alex Txikonek egindako lana da, Nanga Parbatera egindako neguko lehen igoerari buruzkoa. Txikon emanaldian bertan izango da, eta horren ostean berarekin solasaldian ibiltzeko aukera egongo da. Ekitaldia amaituta, kopaua izango da.

Bizkargi Eguna

Ohikoa denez, maiatzaren lehen domekan Bizkargi Eguna ospatuko da eta bertan omenaldia egingo zaie 1937an faxistei aurre egin zieten gudariei. Mendi tontorrean egingo diren ekintzez gainera, Larrabetzun ere ekintzak antolatu dituzte maiatzaren 3rako eta 4rako. Horrela, zapatuan, 12:00etan, XIX. Bizkargi Igoera izango da, eta 15:00etan bazkaria egingo da. Eguen Bakoiitiak taldeak 18:00etan egingo du kontzertua. Domekan, bestalde, txosna zabalik egongo da 17:00etatik aurrera, eta 18:00etan ekitaldia izango da. Eguna biribil-tzeko, 18:30etik aurrera taloak egingo dira eta erromeria egongo da Kittu taldearen eskutik.

Danbor-banda feministaren tailerra Lezaman

Maiatzaren 6an, 8an, 20an eta 22an, 18:00etatik 20:00etara, danbor-banda feministaren tailerra egingo da Lezamako Uribarri Topalekuan. Maila ertaineko tailerra izango da eta Silvia Palumbo Argentinako kantautoreak eta aktibista feministak zuzenduko du. Lezamako Udalak, Moreak talde feministak eta Berdintasun Kontseiluak antolatutako ekintza da, eta izena emateko, berdintasuna@txorierr.eus helbide elektronikora idatzi behar da, edo 688 654 649 telefono-zenbakira whatsapp bidali.

BERRI LABURRAK



Loiuko Gazte Eguna

Loiuko Bakarrak elkarteak Gazte Eguna antolatu du maiatzaren 10erako. Lehenengo eta behin, poteo musikatua egingo dute 13:30etik aurrera, eta 15:00etan bazkaria izango dute. Izena emateko, 626 271 393 telefono-zenba-

kira idatzi behar da, eta adierazi menu beganoa nahiago den edo intolerantziarik dagoen. Bestalde, Berakatz taldeak musikaz girotuko du arratsaldea, eta kontzertuak 22:30ean hasiko dira: Pinpilpussies, Ezezez eta ArkeTyPo.



Segoviatik poz-pozik itzuli dira Derioko muslariak

Apirilean, mus olinpiadak izan dira La Lastrillan, Segovian, eta bertan Estatuko 81 taldek hartu dute parte. Horien artean egon da Derioko 10 muslarik osatutako koadrilla bat. Segoviara joan baino lehen kontatu zigutenez, euren asmo nagusia zen esperientzia bizitzea, baina olinpiadak amaituta, poz baino pozago itzuli dira Txorierrira, 14. postuan sailkatu dira eta.

Aitortu duten moduan, ez zuten espero olinpiadetan hain urrun ailegatzea. Hala ere, kontatu digute jokaturako partidetan ondo ikusi dutela euren burua eta bikotekideak oso ondo moldatu direla elkarrekin. "Egia esan, oso maila handia egon

da. Batzuk munduko txapeldunak ziren, eta talde profesionalak ere egon dira. Agerian zegoen batzuek irabaztea zutela helburu. Gu, berriz, presio barik joan ginen Segoviara, ondo pasatzera, baina azkenean, hain jokalaria onen artean, ikusi dugu gu ere onak garela eta maila dugula".

Esperientzia bizitzea zuten asmoa, eta esperientzia ona bizi izan dute. Gainera, akuilua izan da eta datorren urtean ere olinpiadetan parte hartzeko asmoa dute. Bitartean, hurrengo hitzordua maiatzaren 3an dute Bilbon, bertako ostalaritza-establezimendu batean egingo den txapelketan.

BERRI LABURRAK



Indarkeria matxistari erantzun integrala emateko, erakundeen arteko lehen protokoloa aurkeztu da Derion

Derioko Udalak zabaldu duenez, abian jarri dute “Derion indarkeria matxistaren biktimaren emakumeen arteko jardueraren eta koordinazioaren I. protokoloa”. Protokoloak jardueraren esparru amankomun bat ezartzen du udalerrian indarkeria matxistak prebenitzeko, antzemateko eta eraginkortasunez artatzeko, eta hainbat eragileren artean osatu da, hala nola Gizarte Zerbitzuak, Udaltzaingoa, Ertzaintza, Osakidetza eta ikastetxeak.

Protokoloa, “tresna bizia da, etengabeko hobekuntzara bideratuta dago eta Derioko errealitate espezifikoaren egokitu-ta dago”. Horrela, helburuen artean dau-de langileen etengabeko prestakuntza,

erakundeen arteko koordinazioa, jarrai-pena eta ebaluazioa egiteko datu-bilke-ta, eta biktimaren kontzeptua zabaltzea, bere baitan hurbilekoak eta LGTBIQA pertsonak sartuz.

Esther Apraiz Derioko alkatearen esanetan, “emakume, haur eta per-sona guztiek Derio leku segurua dela sentitzea nahi dugu, eta ez daudela bakarrik; irmotasunez eta gizatasunez babesten duen herria garela sentitu dezaten”. Adierazitakoaren arabera, ekimenaren bidez “Derioko berres-ten du indarkeria matxistarik gabeko gizartearekin duen konpromisoa, eta biktimei arre-ta integrala, enpatikoa eta pertsonalizatua ematen die”.

Loiuko Kultura Asteburua, erabat arrakastatsua

Loiuko Bakarrak gazte-elkarteak antolatuta, Kultura Asteburua izan zen apirileko lehen asteburuan udalerrian. Antolatzaileak batu dira, eta balorazioa egin dute her-ritarrek ekintzei emandako har-rrerari buruz. “Asteburu kulturala oso arrakastatsua izan zen, eta lor-tutako emaitzek nabarmen gainti-tu zituzten gure aurreikuspenak”, azaldu dute. “Lanean ibili ginen guztiok oso pozik gaude izandako arrakastarekin, bai parte-hartzea-ri dagokionez, bai sortutako giro orokorrari dagokionez”.

Jakinarazi dutenez, espero bai-no herritar gehiago bertaratu ziren ekintzetara, “eta horrek argi adieraz-ten du herriak horrelako kultur eki-menekiko interesa eta gogoia duela”. Hori dela eta, sentitzen dute helburu nagusiak bete dituztela: “herritik eta herriarentzat sortutako egun berezia eskaintzea, eta, batez ere jendeak gozatzea”. Era berean, azpimarratu dute herriko jende askoren inpli-kazioa lortu dutela, “artisten zein epailen eta kultura kontsumitzaileen aldetik”. Hortaz, ekitaldien harrera ikusita, etorkizunari begira ere an-tzeko ekimenak antolatzeko ilusioa eta motibazioa dute.



Genero-ikuspegia duen hirigintza bultzatuko du Sondikako Udalak

Sondikako Udalak prentsa-ohar batean jakinarazi du genero-ikuspegia aintzat hartzen duen hirigintza-plangintza jarriko duela martxan, “herria irisgarriagoa, seguruagoa eta inklusiboagoa izan dadin”. Helburua da hirigintzak eguneroko bizitzan duen eragina aztertzea eta leku publikoak, garraioa, segurtasuna eta zerbitzuak eskuratzeko berdintasuna bermatzeko hobeak proposatzea.

Azaldu moduan, udalak herritarren parte-hartze aktiboaren aldeko apustua egingo du, “haien esperientzia eta hirigintza-pertzepzioa funtsezkoak baitira beharrak identifikatzeko eta irtenbide eraginkorrak diseinatzeko”. Ideiak eta proposamenak jasotzeko, datozen asteetan hainbat kontsulta-bide zabalduko dituzte, hala nola inkestak, bilera irekiak eta herritarrek parte hartzeko guneak. “Sondika herritar guztientzako udalerrria izatea nahi dugu, euren generoa, adina edo egoera edozein izan da ere; segurtasunez eta lasaitasunez bizitzeko eta mugitzeko aukera izan dezagun”, esan du Naia Landa alkatea. “Sondika bidezkoago eta inklusiboago bat eraiki nahi dugu, eta sondikoztarren eskutik eraiki nahi dugu”.

Adierazitakoaren arabera, proiektuaren lehen ekintzen artean dago genero-ikuspegitik Sondikako hirigintza-egoera diagnostikatzea. Horretarako, leku publikoetara, mugikortasunera eta zerbitzuetara berdintasunez iristea zailtzen duten oztopo nagusiak identifikatuko dituzte. Ondoren, hobekuntza-estrategiak eta proposamen zehatzak diseinatuko dira. Inkestak betetzeko paperak eskuratu daitezke udal-liburutegian, Nagusien Etxean, kiroldegian, gaztetxean eta udaletxean. Udalak herritar guztiak animatu ditu prozesuan parte hartzera. Online ere bete daiteke.

BERRI LABURRAK



Larrabetzu Town egitasmoa aurkeztu du eskolak

Done Jakue Bidea Larrabetzutik pasatzen da, baina herrian ez dago informazio bulegorik, erromesek hara jo dezaten. Horregatik, eta STEAM proiektu baten bidez, eskolako umeek Larrabetzu Town egitasmoa ipini dute martxan. Egitasmoan Lehen Hezkuntzako (LH) ume guztiek hartu dute parte, eta helburua da erromesei harrera egiteko informazio-gune bat eskaintzea.

LHko maila bakoitzak ardura bat izan

du. Batzuek, esate baterako, harrera-kartelak diseinatu dituzte zenbait hizkuntzatan, eta beste batzuek herriko eraikin esanguratsuen maketak egin dituzte. Era berean, QR batzuk egin dituzte, eta horiek eskaneatuta herriari buruzko azalpenak irakurri daitezke euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Herriaren gaineko informazioa ere batu dute triptikoetan. Azaldu moduan, informazio-gunea non ipini erabaki behar dute oraindik.



Jendea gustura eta gogotsu ibili zen Zamudioko Gazte Egunean

Inisitue gazte-asanbladak Zamudioko Gazte Eguna antolatu zuen apirilaren 12an. Gazte-asanbladako kideak batu dira eta balorazioa egin dute ekimenari buruz. “Oso pozik gaude. Gainera, jendea oso gustura egon zela eta oso ondo pasatu zuela jakin izan dugu; beraz, ezin pozago egon”.

Egitarau oparoa antolatu zuten Inisitue gazte-asanbladako kideek apirilaren 12rako: poteo musikatua, herri-bazkaria, gazte-olinpiadak, elektrotxaranga eta kontzertuak. “Bazkarian 160 pertsona inguru batu ginen. Bazkaria oso gozo egon zen, eta osteko olinpiadak oso dibertiga-

rriak izan ziren: jendeak gogotsu hartu zuen parte”, azaldu dute. Arratsaldean euria bota bazuen ere, gazteak-eta animatu ziren eta Sakatu elektrotxarangarekin batera kalez kale ibili ziren herriko txokoak girotzen. “Herria jendez beteta egon zen! Gauerako, bestalde, karpatox bat eta haima batzuk ipini genituen plazan eurtik babesteko, eta plaza ere bete zen. Oso pozik gaude!”. Agertokira igo ziren Skabidean, Chuleria, joder! TOC eta Dj Aka Pibikens. Bestalde, aipatu beharra dago Inisitue gazte-asanbladak aurtengo 30 urte bete dituela. Ondorioz, are bereziagoa izan da aurtengo Gazte Eguna.

BERRI LABURRAK



Herritarrek aukeratuko sei proiektu egingo dira Lezama

Parte hartzeko aurrekontu-prozesuaren bidez lezamarrek sei proiektu aukeratu dituzte, eta Lezamako Udalak horiek sartuko ditu udal-aurrekontuetan. Udalak guztira 90.400 euro bideratuko ditu egitasmoak gauzatzera.

Prozesuan bi kategorია egon dira: alde batetik, 18 urtetik gorakoek aurkeztutako proposamenak, eta bestetik, 10 urtetik 17 urtera bitarteko gazteen proposamenak. 18 urtetik gorakoek aurkeztutako proposamenen kategorian aukeratu dira hauek: gimnasioaren zorua hobetzea eta makineria berritzea (18.000 euro), Aretxalde frontoia erabat eraberritzeko proiektua idaztea (48.400 euro), eta, herritarren artean bizimodu aktiboa sustatzeko, parke bio-osasungarri bat ipintzea (4.000 euro). Beste aldetik, 10 urtetik 17 urtera bitarteko gazteek aukeratutako egitasmoei dagokien, udalak aipatu du proposamenek argi erakusten dutela aire libreko aisialdi- eta

kirol-gune gehiago izateko interesa. Horrela, bada, hurrengo hauek aukeratu dituzte: kalistenia parkea ipintzea (12.000 euro), aire libreko zinema-saioak antolatzeari (4.500 euro) eta Gazteguneko altzariak eta jolasak berritzea (3.500).

Azaldu moduan, aire libreko zinema irabazle izan da kategorია bietan. Hortaz, gazteen kategorian sartu da, eta 18 urtetik gorako kategorian parke bio-osasungarria sartu da. Era berean, udalak 90.000 euroko diru-partida aurreikusita zuen egitasmoak egiteko, baina 400 euro gehiago beharko dituzte; udalak bere gain hartuko du aldea. Lezamako Udalak azpimarratu du egitasmoaren aurtengo edizioaren arrakasta, eta bere garrantzia nabarmendu du “udal-kudeaketan herritarren inplikazioa sendotzeko”. Datozen hilabeteetan hasiko da egitasmoak egiten, eta haien bilakaeraren berri emango diete herritarrei.

Derio “Haurrekin Adiskidetsua den Herri” izateko bidean

Derioko Udalak prentsa-ohar baten bidez zabaldu duenez, “haurren eta nerabeen eskubideak sustatzeko eta defendatzeko duen konpromiso irmoan” beste aurrerapauso bat egin du, eta izapideak hasi ditu UNICEFek “Haurrekin Adiskidetsua den Herri” moduan aitortu dezan. Azaldu moduan, izendatze horrek udalak inguru seguru, inklusibo eta partizipatiboak bermatzeko egiten duen lana azpimarratzen du, haurrak eta nerabeak erabat hazi eta garatu daitezzen.

Hitzarmena Esther Apraiz Derioko alkateak eta Joseba Madariaga UNICEF Euskadiko arduradunak sinatu dute. “Deriorentzat albiste bikaina da Haurrekin Adiskidetsua den Herri bezala ezaguna eta aitortua izan ahal izatea. Haurrak tokiko politiken erdigunean ipintzeko egiten dugun apustua indartzen du”, adierazi du Apraizek. “Gure umeei Derion iritzia eman, parte hartu eta pertsona moduan hazteko aukera izatea nahi dugu, eta seguru, entzunda eta errespetatua sentitu daitezzen. Aitorpen honek bultzatzen gaitu umeei eta euren etorkizunarekin konpromisoa duen herria eraikitzen jarraituzera”.



AmAr
ileapaindegia

Astearte-ostiralea:
9:00-19:00
Laburumbata:
8:00-13:30

Urbe plaza, 1 behe
Zamudio
944 520 419



ZAMUDIO
Loteria Nacionala

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
loterias.zamudio@gmail.com

KAFETEGIA · OKINDEGIA

LA MODERNA

Egunero, 06:00etatik zabalik



Aretxalde, 64 · LEZAMA · 946 095 091



Goiri'78
ZERBITZU OFIZIALA

944 532 515
goiritaller@fordgoiri.com



ATEKA
Bosch Car Service

946 740 456
ateka@bosch-bcs.com

Txorierri Etorbidea, 46 - Pab. 5C - 5D
SONDIKA



Garcia zutunik, ondoan Andoni Solorzano hizkuntza-aholkularia duela.

ITXASO MARINA

ANER MENTXAKA

IGOR GARCIA
Zine-zuzendaria

“Aititek kontatutako istorioa jaso dut, luzaroan iraun dezan”

Sondikoztarraren hirugarren lana da *Zezena eta umea* film laburra, eta bertan familian gorde-tako istorio bat berreskuratu du. Pelikula bere produkzio-etxearen bidez, PLATANOBOLIGRAFO, ekoiztu du, eta bertan zuzendari-lanak ez ezik, gidoilari- eta ekoizle-lanak ere egin ditu. Azaldu digunez, aurreko bi lanak beldurrezkoak dira, baina azkena jeneralistagoa da eta problematika sozialari lotutako gaia jorratzen du.

Bigarren aukerak dituzu hizpide film laburrean. Zer kontatu ahal diguzu argumentuari buruz?

Hirurogeiko hamarkadako testuinguruan kokatu dut. Oso familia txiro batek ume jaioberria du, eta bizimodua era batean edo bestean atera behar dutenez, erabakitzen dute zezen zuhar bat erostea; gainera, aipatu beharra dago erabakitze-ko orduan ez dutela aukera askorik. Alegi kostunbrista da eta western krepuskularraren ñabardurak ditu, baina pistolarik gabe. Zezena antagonista edo iheslaria da, eta familiaren aurka borrokatu behar du. Euskal western poetiko eta intimista bilakatzen da azkenean.

“Zezena antagonista edo iheslaria da, eta lana euskal western poetiko eta intimista bilakatzen da azkenean”

Zure familian kontatzen den istorioa hartu duzu abiapuntutzat.

Aitite Santiagok berari gertatutako istorioak edo pasadizoak kontatzen zizkidan

ohertzeko orduan, ipuinak izango balira bezala, eta istorio hau zegoen haien artean. Etxeko guztiek zekiten ipuina zela sinetsita nengoen hasieran, baina koskortu ahala konturatu nintzen benetako istorioa zela. Film laburrean jaso dut, luzaroan iraun dezan.

Non grabatu duzu?

Baserri bakar bat badirudi ere, film laburra bi baserrian filmatu dugu: Orozkoko Olabarri baserrian eta Mallabiko Ibutx baserrian. Hiru hilabete baino gehiago eman ditut Bizkaian zehar, herri batetik bestera, baserriak topatzeko, apainketa eta atrezzoak direla eta, argi nuelako bizitzaz

betetako baserriak izan behar zirela. Filmatzeak lau egun iraun zuen, eta 15 minutuko lana da. Hasiera batean, Txorierri filmatzea pentsatu nuen, baina nahiko aurrekontu handiko proiektua izan da, eta bertako udalek ez dute baliabiderik honelako egitasmoak finantzatzeko.

Baliabide nahikorik izan duzu filmatzerako?

Besteak beste, Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren babesari esker lortu dugu proiektua aurrera ateratzera. Laurogei mila euroko aurrekontua behar izan dugu, eta erakundeek emandako diruaz gainera, neuk ipini dut dirua nire poltsikotik, eta beste ekoiztetxe bik ere –MONNDO eta Katxarrerria Films– egin dute diru-ekarpena.

Zer kontatu ahal diguzu lantaldeari buruz?

Lantalde gaztea izan da gehienbat, baina prestakuntza handikoa. Lerro hauetatik aldarrikatu nahi dut zinema-eskolei babes handiagoa emateko beharra. Izan ere, momentu honetan zinema-profesional asko behar dira Bizkaian, eta Euskadiko zinema-eskoletan hain zuzen trebatzen dabilta. Garai batean, berriz, Madrilgo



Garcia, film laburra filmatzen (UNAI MATEO)

zein Bartzelonako edo Hollywoodeko etorri behar izan dira bertoko ekoizpenak aurrera eramateko.

Aktoreei buruz?

Aitor Borobia eta Ane Pikaza dira aktore nagusiak, biak eskarmentu handikoak, eta zazpi hilabeteko haurtxoa Ekiotz Galindo sondikoztarra da. Kepa Errastik eta Patxi Santamariak ere badute papertxoa.

Eta zezena?

Alegre du izena eta Bermeokoa da.

Espero duzu ekainerako-edo film laburra muntatzen amaitzea. Zein ibilbide izatea espero duzu?

Bada, jaialdien zirkuituan sartu eta mundu osoko festibaletatik mugitzen ahaleginduko naiz. Ametsik handiena Goya, edo Oskar, sarietara joatea da.

Txorierriko euskaraz

Garciak adierazi duenez, sondikoztar guztientzako omenaldia ere bada *Zezena eta umea* film laburra. Izan ere, aurreko lanak herrian bertan filmatu ditu, baina oraingo honetan ez da horretarako aukerarik egon. Hori dela eta, lana Txorierriko euskaraz filmatu du. “Gainera, uste dut istorioari erreialismo handiagoa ematen diola”. Hizkuntza-aholkulari Andoni Solorzano sondikoztarra ibili da. “Igorrek gatzelaniaz eta batuan pasatu zi-

dan gidoia, eta nik Txorierriko euskarara moldatu dut. Hizkera eta ahoskera landu dut aktoreekin, eta ahalegindu gara bokal bakoitza bere lekuan sartzen. Ez da erraza izan, eta zailtasun handiagoak edo txikiagoak izan dituzte bakoitzak hitz egiten duen euskararen arabera. Gainera, kontuan hartu behar da aktoreek hainbat alderdi izan behar dutela kontuan: euria, begirada nora, zer esan behar den, zein momentutan... Ni saiatu naiz guztiek

antzera egiten eta Txorierri inguruko euskarara mantentzen”.

Zaintza-lanek ere badute pisua film laburrean. “Eszena polit-polita dago aitararen eta umearen artean. Aitak lo-kanta bat abesten dio haur txikiari, eta haien arteko lotura islatzen da. Bada, lo-kanta hori Andoniren familian abesten dute, eta *Obabatxue* da. Hitzak mantendu ditugu, baina doinua moldatu dugu film laburrerako”, aipatu du Garcia.

RADIO TAXI FEMADE
Zure taxi, Txorierrikoa

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Lolu

24h 94 480 09 09

ERRESERBAK:

www.taxisaeropuertoblibao.com

DESKARGATU APP-A

TAXI FEMADE

Torrealdia

ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA



T ITXASO MARINA ANER MENTXAKA

HERNANDO KIOSKOA
Yolanda eta Victor Hernando

“Batez ere jendearekin egotearen falta sumatzen dugu”

Derioko neba-arrebek martxoaren 3an betiko itxi zuten familiak 60ko hamarkadatik, udalerriko bidegurutzean, izan duen kioskoko pertsiana. Aitak erretiroa hartu, eta neba-arrebek familiako negozioaren ardura hartzea erabaki zuten. Ia bi hamarka egon dira bertan lanean, herritarrek eguneko prentsa izan zezaten. Urte hauetan tratu hurbila izan dute ikur.

Zelan daramazue kioskoa itxi izana? Zelan bizi izaten zabilzate itxiera osteko egunak?

Bueno, ahal dugun moduan daramagu. Egoera berrira moldatzen gabiltza. Izan ere, ez da izan aurretiaz espero genuen gauza bat; adibidez, erretiroa. Hortaz, gure lekua topatzen gabiltza pixkanaka-pixkanaka.

Zergatik erabaki zenuten kioskoa ixtea?

Gero eta egunkari eta aldizkari gutxiago erosten dira. Kioskoan kromoak eta bildumak ere saltzen genituen, baina horiek beste leku batzuetan ere badaude salgai,

“Egunkari gutxi saltzen ziren eta ezbehar bat izan genuen: kioskoa ixtea aukerarik onena zen”

eta azkenean nabaritzen da. Ezbehar inportante bat izan genuen, eta aukerarik onena kioskoa ixtea zela erabaki genuen.

Zenbat urte eman dituzue kioskoan?
Aurtengo urtarrilean 19 urte bete ziren.

Familiako negozioa da, zein da bere historia?

Kioskoa 60ko hamarkadakoa da. Hasieran, aitaren osaba batek izan zuen, eta gero aititek hartu zuen 10 urtez. Ondoren, aitak izan zuen kioskoaren ardura eta bertan 30 urte eman zituen. Guk ez dugu jatorrizko kioskoa ezagutu, baina kontatu digute hasieran errepidearen beste aldean zegoela. Antza denez, kamioi batek bere kontra egin zuen eta eraitsi zuen. Orduan, errepidearen alde honetara ekarri zuten.

Zein izan da zuen egunerokotasuna kioskoan?

Kioskoa astelehenetik domekara zabal-
tzen genuen. Goizez, 04:45etik 14:00etara
irekitzen genuen, eta tokatzen zitzaionak
egunkariak eta aldizkariak ipini behar
zituen euren lekuan, aurreko hilabeteko
aldizkariak batu eta itzultzeak egin...
Arratsalde, 17:00etatik 20:00etara za-
baltzen genuen kioskoa, eta txandaka
egiten genuen lan. Edozelan ere, batzue-
tan gutariko bat egotea nahikoa zen kios-
koaz arduratzeko.

Zerk bereiztu zaituzte urte hauetan? Zeintzuk izan dira zuen zerbitzuen bereizgarriak?

Egunkariak prestatu, eta bezero ziren
tabernetara eramaten genituen. Era
berean, pertsona nagusiak ezin bazi-
ren kioskoraino hurbildu, bada, etxera
eramaten genizkien egunkariak eta al-
dizkariak. Pandemia-garaian ere etxez
etxeko banaketa egiten genuen. Beste
alde batetik, bezeroek bilduma bat egin
nahi bazuten edo bilduma bateko ale-
ren bat falta bazitzairen, eskatzen genion
enpresa-banatzailari.

“60ko hamarkadatik familiak izan du kioskoaren ardura: osabak, aititek, aitak eta bostok”

Baduzue anekdotarik?

Bitxia iruditzen zaigu hurrengo anekdo-
ta hau, gertatu zenean beste garai batean
geundela pentsatu zitekeelako. Gober-
nua zegoela, Zapaterok haur-txekea
atera zuen, eta *El Jueves* aldizkariaren
azalean Espainiako gaur egungo erre-
ge-erreginak atera zituzten sexu-harre-
manak izaten. Zarzuela nahiko ardura-
tuta ibili zen gaiarekin, eta azkenean,
egun batean, ertzainak azaldu ziren
kioskoan aleak konfiskatzera. Gauza da
guk ale guztiak salduta genituela (kar-
kar). Bada, telebistan-eta hain zalaparta
handia sortu zen, ezen jende askok erosi

baitzuen aldizkariaren ale bat. Ohi bai-
no ale gehiago saldu ziren.

Noiz edo zer dela-eta saltzen ziren al- dizkari eta egunkari gehien?

Famatuen ezkontzak zeudenean, esate
baterako, prentsa arrosako aldizkari asko
saltzen ziren. Belen Esteban edo Terelu
Campos agertzen zirenean ere saltzen
zen asko. Gero, jakina, Athleticen emai-
tzak... Errege kopa irabazi zutenean,
egunkari asko saldu genituen. Jakina, 40
urte ondoren, itzela izan zen!

Zer gustatzen zitzaizuen gehien?

Jendearekin egotea.

Eta zeren falta sumatzen duzue?

Bada, jendearekin egotearena hain zuzen.
Egunerokotasuna.

Zelango asmoak dituzue etorkizu- nari begira?

Lehenago eta behin, gurasoak zainduko
ditugu eta atsedena ere hartuko dugu.
Gero geroakoak!



step

**HIZKUNTZA IKASTAROAK
ETA
UDALEKUAK**

Atzerrian **Estatu Batuak,
Kanada, Irlanda, Erresuma Batua,
Malta, Alemania eta Frantzia.**

Tarazonan,
6, 7 edo 14 eguneko egonaldiak, **100%
Ingeles** udalekua, irakasle natiboekin

**Irteera guztiak Bilbotik dira,
begirale batez lagunduta** bidaia eta egonaldi osoan
zehar.

Helbidea: Rodriguez Arias Kalea, 23 - 5-5 (Bilbo)
Telef.: 94 416 13 88 Web: www.steptravel.net

GUREAN IZAN DA

“Alde batera utzi behar dugu hazkuntzaren eta gehiegizko industrialismoaren ideia absurdua”

ANTONIO TURIEL MARTÍNEZ

Fisikaria eta desazkundean aditua

"Desazkundera eta kolapsoa" mahai-inguruak txiki utzi zuen Hori Bai Larrabetzuko gaztetxea pasa den martxoaren 26an. Lumaltik Herriak, Hori Baik eta Auzokideak elkarteak antolatuta, gonbidatuak izan ziren Antonio Aretxabaleta geologoa, Carlos Taibo irakasle erretiratu eta Antonio Turiel CSICeko ikerlaria. Desazkundera eta trantsizio-energetikoaz galdetu diogu Turieli.

**T** ANER MENTXAKA

Desazkundera kontzeptu berria ez bada ere, ez da oso ezaguna. Desazkundera, bereziki, antolaketa- eta izaera-politikoa duen apustua da. Jendea harritu arren, zientzia jarduera politikoa da, hau da, gizarteari axola dion jardura. Adibidez, minbizia- ren aurkako tratamendu bat aurkitzen baduzu, horrek garrantzi politikoa du, baina zientzia ezin da alderdikoia izan. Gaur egungo egoera nabarmena da: etxebizitzaren prezioak, inflazio handiak eta lanaren prekarizazioak kaos eta pobretze egoera batera garamatzate. Txikiagotuko gara, gure ekonomiak nahitaez txikituko dira, eta berdin dio zer egiten dugun. Ezinbestean baliabide gutxiago egongo diren eta ingurumen-egoera zailagoa izango den egoera batera goazenez, desazkunderaren proposamena da bide hori modu planifikatuan eta demokratikoan egitea.

“Desazkunderaren proposamena da trantsizioa modu planifikatu eta demokratikoan egitea”

Doikuntza teknikoak diruditen arren, haratago doa.

Aldaketa soziala da. Oso kontu sakon bat dago: kapitalismoa bertan behera utzi behar da. Eta kapitalismoa zailtasun jartzea tabu kulturala da egun, sozialki onartezina. Irabazia handitzeko interesa alde batera uztea eta gizartearen ongizatearen bermea handitzea dakar. Horrela izan beharko luke, baina bidearen une-

ren batean iparra galdu genuen. Gauzak oso gaizki doaz, baina hala ere ez gara gai paradigma honetatik irteteko.

Hartu beharreko neurriek izaera makroekonomikoa dutela dirudi: bostere gune handietan erabaki eta gero tokikora jaitsi.

Logikoa denez, izaera makroekonomikoa dute, erabaki behar baita ez gaita haziko eta herritarren ongizatea hobetzeko neurriak hartuko ditugula. Baina gero dena mikro da. Ezin da bestela izan: birlokalizazioaz ari gara, tokiko beharrak aseko dituen tokiko produkzioa berreskuratzeko. Energia ugariak eta merkeak eragin zuen globalizazioa. Txinan ekoizteko zenezakeen edozer eta gero hona ekarri. Energia hain ugaria eta merkea ez den heinean, birlokalizazioa gertatzen da, produkzioa berriz bueltan dakarzu, eta hori nahiko maila mikro batean gertatzen da: nola antolatuko

zara hemen zure elikagaiak, produktuak eta zerbitzuak ekoizteko? Toki bakoitzak bere idiosinkrasia du eta egiteko modua ez da berdina izango Bilbon, Iruñean edo Extremaduran. Zure bioeskualdeak asko baldintzatzen du, ezaugarri, baliabide eta arazo propioak baititu.

Tokian tokiko ikuspegi hori saihestezina al da?

Saihestezina da, eta Euskadin oso agerikoa egiten ari da. Elite ekonomikoak eta alderdi nagusiek babestu duten ereduak esportaziora bideratutako eredu industrialistak dira, eta ezin dira baliabide mugatuko mundu batean mantendu. Gehiago arduratu behar gara hemen kontsumitzen diren produktu eta zerbitzuen ekoizpena bermatzeko moduez. Paradigma-aldaketa oso garrantzitsua da, eta alderdi politikoek ez dakite nola erantzun.

Badirudi, norberak, energia-trantsizioan urratsen bat egin nahi badu diru nahikoa izan behar duela.

Trantsizio energetikoaz hitz egiten denean, eredu bakarra dagoela ematen da aditzera. Eta gaur egun, eredu horretan, ez dago trantsiziorik, ez dagoelako ordezkapenik. Dirua eta dirulaguntzak erakartzeko mekanismo bat da. Beste trantsizio-ereduez hitz egiten hasi behar dugu: elektrizitatea ekoiztetik pasatzen

“Bide militarra gure arazoak konpontzeko bide naturala dela onar dezagun nahi dute”

ez den energia berriztagarrien aprobetxamenduaz, tokiko aprobetxamenduaz. Elektrizitatea oso problematikoa da alderdi askotan, baina, bereziki egun, materialik ez dagoelako, eta kobrea ere falta zaigu.

Premiazkoa al da pauso hori ematea?

Oso premiazkoa dugu. Apustu egin dugun ereduak ez du funtzionatzen. Gainera, egoera geopolitikoa guztiz kaltegarria da. AEBk orain muga-zergak jarri dizkie esportazioei. Nazioarteko merkataritza hondatu nahi du. Eurek baliabide naturalak dituzte, beren enpresak birlokalizatuko dituzte eta, ziurrenik, beren merkatu naturalarekin biziraungo dute. Txina egoera berean dago. Baina Europar Batasunak ez du baliabiderik eta etsita dago. Administrazioa sinplifikatzeko azken dekretuak, berez, ingurumen-araudia erlaxatzeko dekretuak dira. Nondik aterako ditu baliabideak etorkizunean? Afrika inbadituz.

Egun hauetan, Europar Batasunak biziraupen-kit bat eskuratzea gomen-datu du

Albiste horiek psikosia sortzeko dira, jendeak bermilitarizazioa onar dezan, batez ere kontzientziaren aldetik. Bide militarra gure arazoak konpontzeko bide naturala dela onar dezagun. Epe ez oso handian Aljeria inbaditu behar dugula esaten badigute, guk ezinbestekotzat hartzeko. Erabat ezmorala izateaz gain, baliabideak ia agortuta daude Afrikan ere bai. Gainera, Europa kolapsatu egin daiteke ahailegin militarrragatik eta areagotzen ari diren gizarte-arazoengatik.

Zer egin dezakegu, eskuin muturrak sare sozialetan eztabaida baldintzatzen duen garai honetan? Badirudi horrelako proposamenek ez dutela lekurik

Ezkerreko alderdiek akats estrategiko handia egin dute. Uste izan dute kapital handiarekin negoziatuz eta industria ereduari eusten saiatuz dena ondo joango zela. Jendea ez zaio trantsizio energetikoa axola; bizi ahal izateko lana, bizitza duina eta ingurumen egonkorra izatea axola zaio. Jendearen benetako arazoak entzun behar dira. Teknikoki gauza asko egin daitezke, baina gizartea aldatzeko borondatea egon behar da. Alde batera utzi behar dugu daukagun hazkuntzaren eta gehiegizko industrialismoaren ideia absurdu hori.

Ikerketa eta dibulgazioa

Antonio Turiel Martínez (Leon, 1970) doktorea da fisika teorikoan eta Ikerketa Zientifikoaren Kontseilu Gorenaren (CSIC, gazteleraz) Itsas Zientzien Institutuan jarduten du egun. Bere ikerketa esparrua ozeanoak eta klima badira ere, urteak daramatza lehengaien

agortzearen eta beste trantsizio-ereduen inguruan idazten, izan ere, dibulgazio lana ere bada Kontseilu Goreneko ikerlarietara eskatzen zaien betebeharra. *El futuro de Europa. Cómo decrecer para una reindustrialización urgente* (Destino, 2024) da argitaratu duen azken liburua.

Bertan, gaur egungo trantsizio-energetikoaren porrotari buruzko analisisa egiten du, eta baliabideen eskasiaren aurrean hartu ahal diren hainbat irtenbide aipatzen ditu. Baina bereziki, bizi-eredu efiziente eta xume baterako gonbitea da Turielen liburua.



No-apaindegia
 M^a Antonia Llodio TXPI
 Txorierako etorbidea, 6
 Tel.: 94 452 02 70
 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



PATXI KOOP
 RADIO KOOPERATIBA ELKARTEA
 Herriko jauregia - Euzkero 4, 48110 Zamudio (Bizkaia) - Tel: 944 522 587 - info@paxi.org - www.paxi.org



ELORRIETA
 INSTALACIONES ELÉCTRICAS
 ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
 INSTALAZIOAK, MANTENTZE-LANAK,
 KONPONKETAK...
 MATERIAL ELEKTRIKOA SALGAI
 info@elorrietainstalaciones.com 639 582 547
 Uribe kalea 12 behea - Derio 944 540 386



ITXASO MARINA

LEZAMAKO KOOPERATIBA

Ainara Basaras Zarate eta Arantza Zarate Etxebarria

Mende bateko kooperatiba

Herritarren artean historikoki «Sindiketua» moduan ezagututa, Lezamako Nekazaritza eta Abeltzaintza Kooperatibak 100 urte bete ditu aurten. Mende bat bete izana da handitasunez ospatu beharrekoa, eta, hortaz, egitarau berezia antolatu dute maiatzaren 15erako. Kooperatibistak, lezamarrak zein inguruko guztiak daude gonbidatuta.

Arantza Zarate Etxebarriak 44 urte daramatza kooperatiban lanean, eta berak eman digu ospakizun-ekintzen berri. Ohi moduan, idi-probak izango dira goizean, eta gero Asturiaseko aizkolari batek enbor-mozketatik bertikalaren erakustaldia egingo du. Abadeak kooperatiba bedetinkatu ondoren, dantza- eta musika-saioa egingo dute Kurutze dantza-taldeak eta Ekidazu abesbatzak hurrenez hurren. Bazkaria ere egongo da, eta maiatzaren 5era arte zabalik egongo da bertan izena emateko epea. Bazkaria kooperatibistentzat zein kooperatibista ez direnentzat izango da, eta 40 euro balio ditu; prezioaren barne daude kopaua eta bazkaria. “Urte hauetan

guztietan ateratako argazkietako batzuk batu ditugu, eta film bat moduan eman go dira bazkariaren ostean, kooperatiban izandako momentuak eta ekintzak gogora ekartzeko eta jendeak ikusteko. Arratsaldean ere izango da aizkolarien erakustaldia, eta dj batek musika ipiniko du ospakizuna apur bat luzatzeko”.

Mendeurrena modu berezian bizitzen dabilta kooperatiban, 100 zenbaki potoloa da eta. Zaraterekin batera, alabak, Ainara Basaras Zaratek, lan egiten du. Urteurrenak sortzen duen poztasunak kontrastatzen du lehen sektoreak aspalditik duen krisiarekin, eta, Zarateren esanetan, ez da erraza aurrera egitea. “Ez dakit atzean datozenek ganadua eta ortua ikusiko

dituzten... Egoera aldatu behar da asko, eta gobernuak laguntzen ez badu, gauza gutxi dago egiteko, ze gazteek ez dute sektore honetan sartu nahi. Lehen, Larra-betzutik irten, eta Sondikaraino ikusten zen ganadua errepidearen albo batean zein bestean. Orain, berriz, esne-behiak dituen baserri bat izan ezik, ez dago ezer, eta ahuntzak edo ardiak ikusten badira, landak garbitzen dabiltaizalako da. Nekazaritzan ere lehengo jendea dabil eta ez da ikusten ordezkorik egongo denik, dedikazio handiko lana delako”. Gaur egun, 68 bazkide dira kooperatiban, baina Zaratek aipatu duenez, bikoitza ere izan dira.

Lezamako Nekazaritza eta Abeltzaintza Kooperatibak bezeroen eskura ipin-

tzen du abereentzat eta orturako behar duten guztia: pentsua, lurra, ongarria, landareak, belar-zamak neguan... Etxeko lorategian edo balkoian letxugak eta tomateak, esate baterako, ipintzera animatu direnentzat ere erreferentziatzeko lekua da kooperatiba, eta amak zein alabak aholkua ematen diote hasi berriari zein profesionalari. Bestalde, bezeroek beste mota batzuetako artikuluak ere topatzen dituzte kooperatiban, hala nola burdindegiko gauzak, zapatak, olioak, ardoa eta katu zein txakurrentzako jana. Albaitaritzaz-zerbitzua ere badago kooperatiban.

HAINBAT KOKALEKU

1925. urtean, 18 auzokidek Lezamako Nekazaritza eta Abeltzaintza Kooperatiba sortu zuten lehen sektorearen inguruan indarrak batzeko eta hobeto antolatzeko. Kooperatiba Kurtze auzoan ipini zen lehenengo eta behin, tren-geltokiaren ondoan, eta beharrianen arabera hainbat lekutan kokatu da mende bateko historian zehar. Horrela, Errekakoetxe izeneko etxean egon da frontoiaren atzean, eta gero, Larraetxe Etxean. Handik herriguneko lokal batera eraman zuten egoitza –gaur egun Kutxabank dago bertan–, eta, egoitza handiagoa behar zenez, 1956. urtean eraikin bat altxatu zen udaletxearen atzeko aldean, han kooperatiba ipintzeko. Nolanahi ere, herriaren hiritzintza-garapenaren eraginez, XX. mendearen amaieran beste kokaleku bat bilatu behar izan zen erdigunetik urrunago. Horrela, bada, 2000 urtean gaur egungo eraikina egin zen Aretxalde auzoan.



1956an, udaletxearen atzean eraikina altxatu zen bertan kooperatiba ipintzeko.



Kooperatiban antolatutako herri bazkaria.



IN | SUKALDEAK
insukaldeak.com

BILBAO
T. 94 402 82 54

Lehendakari Aguirre 175-177.
48015 Bilbao

DERIO
T. 94 656 85 69

Txorierriko etorbidea 9. Ed. Arteaga.
48160 Derio

**NAHI
DUZUN
SUKALDEA**

25 urteko esperientziak bermatzen gaitu.
Doako finantzaketa.

KAISHOP, Asko balio du! kanpaina martxan Txorierrin

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak, Bizkaiko beste hainbat udalerrirekin elkarlanean, **KAISHOP, Asko balio du!** kanpaina jarri du martxan, herrietako merkataritza eta euskara batuz.

Txorierriz gain, kanpaina herri hauek ere jarriko da abian, euskarri digital eta fisikoen bidez: Getxo, Gernika-Lumo, Erandio, Leioa eta Basaurin.

Txorierrin maiatzaren 2an hasi eta 9an bukatuko den kanpaina honen bidez, bi gai nagusitan jarri dugu arreta:

- **Tokian tokiko merkataritzak** ematen digun tratu pertsonal eta gertukoa. Izan ere, kalitatezko produktuak gertu eskuratzeko aukera ematen du, gure beharretara berehala egokitzen den zerbitzu bati esker.
- **Euskarak** tokian tokiko merkataritzan duen garrantzia. Euskara guztiona da, jantzia, osoa, aberatsa, gertukoa, kalitatezkoa: **Asko balio du! Zu euskaraz entzuteak...** Beste hizkuntzetan erostean batzuetan deseroso edo arrotz sentitu gaitezke.

Bi gaiak uztartuz, kanpainaren hartzaille izango diren **Txorierriko herritarrei gonbidapena luzatuko diegu herrian eta euskaraz eros dezaten.**

Horrez gain, aurtun *Kaishop!* kanpai-

nak Euskaraldiarekin bat egingo du, eta bi ekimenek elkarri bultzada emango diote. *Kaishop!*-en kartel eta euskarrietan merkataria Euskaraldiko logoekin agertuko dira, eta kalean egingo diren inkesta ibiltarrietan ere Euskaraldiari keinu bat egingo zaio.

Kaishop! kanpaina, Txorierriko Mankomunitateak saltokiei urte osoan zehar egiten dien “*Euskararen Lagunak*” eskaintzaren barruan kokatzen da. 120 establezimendu baino gehiago dituen sarea da, eskualdeko saltokietan euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko. Aurtengo kanpainako kartela sareko kide diren sei merkataria eta ostalariren argazkiekin osatu da, Txorierriko herri bakoitzeko bana:

- Loiu: Luis G.L. Bustamante Farmazia
- Sondika: Sondika Bitxi denda
- Derio: Mendia taberna
- Zamudio: Aramendi Gozotegia
- Lezama: Dañobeitia janari-denda
- Larrabetzu: Larrabetzu pelukeria

Bestalde, iaz egin ziren moduan aurtun ere kaleko inkesta ibiltariak egingo dira Txorierrin guztian zehar, eta herritarrek Txorierrin eta euskararen inguruan zenbat dakiten erakutsi beharko dute. Ondorengo egun eta orduetan ibiliko gara kaleetan zehar inkesta ibiltariak egiten:

- Derio: maiatzak 2, 17:00-19:00
- Loiu: maiatzak 2, 19:00-19:45

- Sondika: maiatzak 2, 19:45-21:00
- Zamudio: maiatzak 9, 17:00-18:20
- Lezama: maiatzak 9, 18:20-19:40
- Larrabetzu: maiatzak 9, 19:40-21:00

Inkesta betetzearren soilik parte-hartzaileek karteratxo bat jasoko dute opari gisa, eta **Eneko Atxaren jatetxean 2 lagunentzako bazkari** baten zozketan sartuko dira.

Mankomunitatetik jartzen diren opariez gain, iaz bezala Txorierriko establezimenduek haien komertzioa sustatzeko opari bat eman ahal izango dute. Opari hori zozketatu egingo da parte-hartzaile guztien artean eta gure sareetan zabalduko da. Zure establezimenduak kanpainan parte hartu nahi badu bidali mezu bat edo deitu **688618816** zenbakira edo **merkataritza@txorierrri.eus** helbidera idatzi.

Kanpaina gehiago ezagutu nahi baduzu, hemen duzu Txorierriko “Euskararen Lagunak” maparen esteka: <https://www.tganet.net/beo/mapaeustxorierrri/>

Maiatzaren 3tik 9ra arte, sare sozial hauetan kanpainaren eduki digital ezberdinak zabalduko ditugu: Youtube, Instagram, Twitter eta Facebook.

#Kaishop #erosieuskaraz #erosiherrian
Beraz, **Txorierrin erosi euskaraz! asko balio du eta!**



Gazteentzako aholkularitza sexologikoa martxan!

Maiatzetik aurrera, 16-29 urte bitarteko gazteei zuzendutako sexualitate eta harremanei buruzko aholkularitza telematikoa zerbitzua martxan jarriko da Txorierriko Mankomunitatean, Bizkaia Gaztearen kolaborazioarekin.

Zerbitzu hau, prebentzioan, osasunaren sustapenean eta hazkunde erotikoa oinarritutako da. Esku-hartzearen

eragile nagusia sexualitatearen eta erotikaren kultura osasuntsua, atsegina eta arriskurik gabea sustatzea da, nerabeei aholkuak posta elektronikoz edo telefonoz ematea dakarkien diskrezioa eta anonimotasuna sustatuz.

688 815 071 telefonora deitu ahalko dute hilabete bakoitzeko jaieguna ez den lehenengo asteartean, 15:30etik 18:30era, edo **argisex@txorierrri.eus** helbidera idatziz.



Gurot final arrakastatsua San Mamesen

Apirilaren 4an ehundaka gazte elkartu ziren San Mameseko Ipar aretoan Guroteko final handia zuzenean jarraitu ahal izateko. Lehiaketa kolektiboak amaiera zirraragarria izan zuen.

Gurot aplikazioa, euskal kultura eta kultura unibertsala euskaraz eta online uztartzen dituen jokoa da, eta 12-18 urteko gazteei zuzenduta dago. Zortzi gai desberdinetan dago banatuta: gizartea, kultura, natura, aisia, hizkuntza, artea, kirola eta zientzia. Baina betiere gazte-entzako interesgarriak izan daitezkeen galderak sartu dira: galdera harrigarriak, jakingarriak, interesgarriak izan ahal direnak. Adibidez, zenbat kilo pisatu dezake balearen bihotzak? edo, zenbat hezur dauzka giza gorputzak? edo, zeinek

dauka 3 Michelin izar: Arzakek, Argiñanok edo Eneko Atxak?

Galdera hauen erantzunak jakin nahi izanez gero, Guroten sartu eta jolastea besterik ez dago.

2024an, Bizkaiko 3.132 gaztek hartu zuten parte banakako txapelketan eta hortik 315 Txorierrikoak izan ziren.

Urtarrilean, berriz, taldekako txapelketari ekin zitzaion. Gazteen arteko harremanak sustatu nahi ziren horrela, aurrez aurrekoak. Elkartu daitezela, finalera joan, bertan elkar ezagutu, elkarri *insta* pasatu, ederto ibili... eta dena euskaraz.

Urtarrilaren 20tik otsailaren 16ra, hiru gaztez osatutako 185 talde sortu ziren Bizkaian eta hortik 23 Txorierrikoak ziren. Hilabetez jolasean aritu

ostean, final handian 42 gaztek hartu zuten parte 14 taldetan banatuta, udal-erri edo eskualde bakoitza ordezkatzuz: Abanto-Zierbena, Amorebieta-Etxano, Erandio, Etxebarri, Gernika-Lumo, Galdakao, Getxo, Lekeitio, Mungia, Sestao, eta Enkarterri, Uribe-Kosta, Durangalde eta Txorierriko mankomunitateak.

Finala emozioz eta energiaz beteta egon zen. 400 pertsonatik gora elkartu ziren bertan eta gehienak gazte kuadrillak ziren. Gainera, sari politak eraman zituzten irabazleek: asteburu pasak Salouko *Port Aventurara*, Madrilgo *Warner*rerera, Toledoko *Puy du Four*a, Athleticen Museoan ikusteko sarrerak, Zeid festerako sarrerak...

Zorionak parte hartzaile eta irabazle guztiei!

TXORIERRIKO BERBAK

Jesarrita ala zutunik?

Aste barruan, behintzat, denpora luzea emoten dogu *jesarrita*. Eta *jesarrita*? Beste horrenbeste. *Jarrita* be ez doguz ordu gitxi pasetan... Txan-txak alde batera itxita, hiru aditz horreek egokiak dira euskeraz, bai ahoz, bai idatziz. *Jesarri* (yesarri) eta *jarri* (yarri) dira

bertako formak Txorierriin. Erabili daiguzan ba! Ganera, Euskaltzaindiaren Hiztegiak hirurak jasotzen dauz. *Jesarrita* ez gagozanean, *zutunik* egon gaitekez. Gure eskualdetik urten barik, modu bat baino gehiago erabili geinke hori adierazoteko: *zutunik paratu* (pareu), *altxatu* (altzau/

altzeu), *zutundu* eta *jagi*. Urrunagoko herrietan erabilten diran “zutitu” eta “tente jarri” aditzak be ezagutzen doguz, globalizazioa hizkuntzak be hartu dauzalako. Baina, aukeran, gurago bertoko berbei leku apur bat emoten badeutsegu. Hobeak diralako? Ez, geureak diralako.



ITXASO MARINA ANER MENTXAKA

HORI BAI GAZTETXEA

Ane Barcena Guarrotxena kidea eta Jon Aurrekoetxea Olivares kide ohia

Harro, sei hamarkadaren ostean

Hirurogei urte bete ditu Larrabetzuko Hori Bai gaztetxeak. Andra Mari kaleko 23. zenbakian dagoela, Hori Bai leku esanguratsua eta berezia da larrabetzuarrentzat zein txorierritarrentzat; erreferentea. Ane Barcena Guarrotxena bertako gazte-asanbladako kidea da gaur egun, eta Jon Aurrekoetxea Olivares 90eko hamarkadan izan zen partaidea. Biak batu ditugu gaztetxean, eta harro hitz egin digute Hori Bai eta bere ibilbideari buruz.

Urteurrena dela eta, gazte-asanbladaren gaur egungo kideak gaztetxetik pasatu diren hainbat belaunalditako partaideekin biltzen dabilta, Hori Bai buruz ahalik eta testigantza gehien biltzeko asmoz. Gaztetxea elizaren lokal batean dago, eta duela 60 urte Elizaren babespean edo sortu zen. “Francoren garaia zen, eta beste herri batzuetan moduan, bertoko gazteek taldea osatu zuten eta gune hau erabiltzen hasi ziren, besteak beste, euskaraz hitz egiteko, euskal dantzak ikasteko, mendi-itzeerak egiteko eta euskal kultura sustatzeko”. Izena garai hartako partaideen izaera baikorretik dator. “Antza denez, gauzak proposatu, eta proposamen guztiei “hori bai!” esaten zieten”.

“Gaztetxeak sortzeko guneak dira; irabazien logikatik kanpo, beste aisialdi-eredu bat sustatzeko lekuak”

Eraikinaren egoera txarraren ondorioz, Hori Bai 1983. urtearen hasieran itxi zen. “Udalak agindu zuen gazteak batzeko beste lokal edo gune bat emango zuela, baina denborak aurrera egin zuen eta lokal barik jarraitzen zuten. Gainera, zu-

rumurruak zabaldu ziren Elizak lokale-rako zituen asmoei buruz, eta azkenean eraikinera sartu eta okupatzea erabaki zuten 1986ko abenduaren 24an. Aitzakia moduan Olentzero ospakizuna hartu zen. Eraikina txukundu, eta gaztetxe bihurtu zuten bizitza emateko”. 80eko hamarkadan, bestalde, gaztetxeen loraldia izan zen Euskal Herrian, garaiko krisi sozialari eta ekonomikoari erantzuna emateko. Gazteak antolatze eta egitasmo alternatiboak sortzeko gune bihurtu ziren, eta Hori Bai ere herriko gazteen beharrianak asetzera etorri zen. “Azken batean, sasoian sasoiko testuingurua ezberdina izan arren, belaunaldi guztietan gertatzen da hurrengo hau: adin-tarte zehatz bateko gazteek aisialdi-aukera gutxi

dituzte edo dituztenek ez dituzte asetzen, eta gauzak euren modura egitea pentsatzen dute eta autogestiora jotzen dute. Gaztetxeak, gazte-elkarteak, gazte-asanbladak... askotariko guneak dira motibazio ezberdinak dituzten gazteentzat. Sortzeko guneak dira; irabazien logikatik kanpo, beste aisialdi-eredu bat sustatzeko lekuak. Politikarako espazioak ere badi-ra, politika ikasteko eta egiteko. Beharbada, aukera hau ez da agintari nagusien gustukoa, eta aspaldi honetan okupazioaren kontrako olatua dago eta hainbat gaztetxe utzarazten dabilta. Potentzial handiko lekuak dira, eta, agian, horregatik ezabatzen nahian dabilta”.

“Herritar askok egin dio ekarpena Hori Bai-ri, eta hortaz, harrotasunez sentitzen dute, eta babesten dute”

Hirurogei urtean Hori Bai arrisku-egoeran egon da zenbait alditan. “Azkena 2002an izan zen. Udalak eta Elizak eraikina behera botatzeko asmoa azaldu zuten, baina herritarrek Hori Bairen alde batu ziren eta egundoko indarra eta elkartasuna erakutsi zuten. Azkenean eraikina ez botatzea lortu zuten. Gaur egun egoera egonkor batean gauden arren, kezkatuta gaude aspaldi honetan, Euskal Herrian, ia astero dagoelako utzarazte bat. Nahiz eta lasai egon, ez dakigu hemendik gutxira zer gertatu daitekeen: legea gero eta zorrotzagoa da, eta espazio autogestionatuen egoera, gero eta kezkarriagoa”. Gazteteen eta autogestionatutako espazioen kontrako oldarraldiarekin batera, gazteek eta gazte-asanbladek erakutsitako solidaritate- eta babes-olatu ere etorri da. Gainera, Hori Baitik herriko hainbat belaunaldi pasatu izanak –kasu batzuetan, familia bereko aitite-amumak eta bilobak ere– are bereziago eta estuago egiten du herritarren eta gaztetxearen arteko lotura. “Jende askok egin dio ekarpena Hori Bai-ri, eta hortaz, harrotasunez sentitzen dute, eta babesten dute. Beste herri batzuetan, beharbada, ez dago gune autogestionatuekiko senti-



2004an Hori Bai egindako zenbait ekintza.



mendu hori, baina, Hori Bairen kasuan, herriaren baliabideek eurek nolabait lagundu dute gaztetxearekiko aldeko jarrerara eratzten: adibidez, herrian ez dugu kultura-azpiegitura handirik, eta garai batean ere elkarte gutxi zeuden. Beraz, gabezia horiek betetzen ahalegindu gara. Gainera, elkarte moduan, Hori Baiko kideok aurreko belaunaldiengandik etorri dena jaso dugu, eta ondorengo belaunaldiari helarazi diegu; eskola izan da zentzu horretan”.

ERREFERENTEA

Hori Bai erreferentea da larrabetzuarentzat zein txorieritarrentzat eta inguruko herritarrentzat. Sei hamar-kadaren ostean eta gazteen kezkak belaunaldiz belaunaldi eta testuinguruaren arabera aldatzen direla jakinda, fidelitasunez jarraitu diote hasierako filosofiari: autogestioa. “Borondate politikoagatik gaude gazte-asanbladan, eta ekintzak ez ditugu irabaziak izateko asmoarekin antolatzen. Autogestioa ez da erraza,



lana eta lana da, eta gauzak kolektiboki antolatzen ditugu, guztiak errespetatuz eta guztion interesak asez. Halakoetan giza baliabideak dira garestienak, eta guk musutruk ematen dugu. Nolanahi ere, proiektu hau guztion artean adostu dugunez, guztiok motibatuta gaude gauzak aurrera eramateko”. Gaztetxearen izaera herrikoia lagunduta, motibazio horrek eraikineko hormak behin baino gehiagotan zeharkatu ditu, konpontze-lanak egiteko, gazte-asanbladak auzolanera deitu

Hori blaituz

Gazte-asanblada kultur egitarau berezia antolatzen dabil Hori Bairen 60. urteurrenaren harira. Horrela, bada, aurreko hilabeteetan mahai-ingurua antolatu zuten arriskuan dauden gaztetxe eta gazte-asanbladen egoera eta aurre egin behar dieten oztopoak ezagutzeko, eta zuhaitzak landatu zituzten gaztetxearen ize-na duen basoan. Maiatzean, bestalde, Hori Blaituz asteburua izango dute, ekintzaz beteta etorriko dena. “Aspaldian egiten zen asteburua da, eta duela urte batzuk berreskuratzeko saiakera egon zen arren, ez zuen jarraitutasunik izan. Urteurrena dela-eta pentsatu dugu berriro saiatzea. Helburua ez da kanpoko jendea erakartzea, baizik eta herritarrekin eta elkarrekin elkarlanean ibiltzea eta gazteei eta herritarrei eskaintza egitea”.

Asteburua maiatzaren 9an, barikuz, hasiko da. Arratsaldeko 7,30ean 60. ur-

teurrenaren harira herriko musikari gazteek egindako abestia aurkeztuko da jendaurrean, eta 20:30ean, musika-emanaldia izango da. Zapatuan, maiatzak 10, dj-, serigrafia- eta boxeo-tailerrak izango dira 10:30etik aurrera, eta 15:00etan, herri-bazkaria. Bazkaldu ostean, Nork daki? jolasean ibiliko dira. “Hori Baiko lehengo belaunaldiak egiten zuten jolasa da, eta berreskuratzea pentsatu dugu. Hainbat galdera egiten dira Larrabetzuko pertsona bati buruz, eta pertsona hori nor den asmatu beharra dago”. Itallen bertso-eskolako kideek girotuta, bertso-poteoa egingo da 19:00etan, eta 22:00etatik aurrera dj-a egingo da Hori Bain. Asteburua biribiltzeko, domekan, maiatzak 11, urteurrenari lotutako murala margotuko da 11:00etan, eta 17:30ean “Musika eta gaztetxeak Euskal Herrian: eskutik doazen bideak” solasaldia egingo da. Besteak beste, Josu

Ximun Billelabeitiak eta Aiora Renteriak hartuko dute parte bertan.

Beste aldetik, eta ohikoa denez, Hori Bai Eguna ospatuko dute uztailaren 31n. “Aktetan jaso den moduan, Hori Bai data horren inguruan sortu zen. Aurten izango dugu bazkaria, mus eta karta txapelketak eta erromeria”. Era berean, Gazte Eguna egingo dute abuztuaren 2an, herriko hitzordurik garrantzitsuetako bat dena. “Aurrekoengandik jasotako eskemari jarraitzen diogu: goizean hasita, poteoa egingo da, bazkaria, olinpiadak eta kontzertuak. Aurten, gainera, gaztetxeen eta gazte-asanbladen aldeko manifestazioa berreskuratuko dugu. Baziren urte batzuk egiten ez genuela, jende gutxi batzen zelako, baina egungo egoera ikusita uste dugu egokia dela berriro antolatzea, gero eta gaztetxe gutxiago dugu eta”.

duenean. “Eta eskerrak! Bestela, hau ez litzateke posible izango. Egutero, agian, ez, baina zerbait puntuala dagoenean, herriak beti erantzuten du”.

Izan ere, Hori Baik ere ekarpen handia egiten dio herriari. “Alde batetik, gune bat gara eta Larrabetzuko edozein eragilek antolatu dezake bertan ekintza bat. Aberasgarria da, ze nahiz eta gazte-asanbladak gestionatu, lokala herri osoarena da eta herri osoak erabili dezake. Beste aldetik, milaka ekintza antolatzen ditugu urtean zehar: Gabonetako kultur ekitaldiak, hitzaldiak, kontzertuak, tailerrak, San Inazio, Gazte Eguna... Kanpora begira egiten ditugun ekintza horiek lan handia dakarte, baina herritarren laguntza izaten dugu eta ez dugu bakarrik lan egiten. Gero, kanpoan ikusten ez diren ekintzak ere antolatzen dugu, barne-ekintzak, garrantzia handia ematen diegulako barne-mailako formakuntzari eta gure arteko komunitatea indartzeari”. Ekintzez ari garela, saihestezina izan da gaztetxean 80ko hamarkadaren amaieran eta 90 hamarkadaren hasieran egindako kontzertuei buruz hitz egitea. “Euskal

“Hori Bairen eta gazte-asanbladaren izaera belaunaldiz belaunaldi helarazten jarraitu nahi dugu”

rock erradikalaren geraldian geunden, eta gehienbat kontzertuak antolatzen ginen. Hori Bain garaiko talde ospetsu guztiek, edo ia guztiek, egin dute kontzertua: Kortatu, Hertzainak, BAP, Delirium Tremens, Negu Gorriak, Zarama, MCD, Dut, Parabelum...”.

Gazte-asanblada sasoiaren dago gaur egun, eta pozik. Kontatu digutenez, esutasun handi bat gaudituz dute, azken urteetan ez zutelako belaunaldi berriak erakartzea lortzen. “Pertsona gutxi geunden. Despolitizazio orokortua egon da, eta jendeak ez du gazte-asanbladetara sartzeko motibaziorik izan. Egoerari buelta nola eman hausnartu dugu eta

dinamika batzuk ipini ditugu martxan gazteak erakartzeko. Egia esan, ondo funtzionatu dute eta momentu honetan 20 pertsona gaude gazte-asanbladan”. Antzekoa da gazte-asanblada eta ekintzak kudeatzeko lehen eta oraingo modua: lantaldeen bidez. Belaunaldiz belaunaldi ikasitako eta hobetutako era da, baina gaur egungo kideak ahaleginetan dabilta funtzionamendua gero eta gehiago optimizatzeko. “Gazte-asanbladak nahiko ondo funtzionatzen du. Helburua da funtzionamendu ahalik eta onena izatea eta ekintzak ahalik eta ondoen egitea. Hau da, guztiok ekarpena egin ahal diogun antolakuntza izatea eta gauzak motibatzen gaituztelako egitea, eta ez egiteagatik”. Etorkizunari begira, hala ere, erronkak ere badituzte. “Asanbladara hurbildu diren gazteak luzaroan gelditzea nahiko genuke, eta gure artean giro ona sortzen eta Larrabetzuko gazteei eta herritarrei aisialdi alternatibo bat eskaintzen jarraitu. Era berean, Hori Bairen eta gazte-asanbladaren izaera belaunaldiz belaunaldi helarazten jarraitu nahi dugu”.

Ekin eta ekin 35 urtez. Publikoa, irekia, guztiontzat.



TXORIERRIKO UDAL
EUSKALTEGIA



C1 maila prestatzeko gazteentzako IKASTARO TRINKOA

Noiz
Ekainaren 3tik 26ra

Ordutegia
9:30-14:30 Goizez
Egunean 5 ordu

Matrikula
azken eguna:
maiatzak 27



DERIOKO JAI BATZORDEA

DERIOKO JAIK

Iazko jai-eredu arrakastatsua sendotu nahian

Formatu berria izan zuten iaz San Isidro jaiak, eta aurten ere eskema berberari jarraituko diote. Horrela, derioztarrek eta bisitariek bi asteburutan gozatu ahalko dute jai-egitarau oparo eta zabal batez. Zehetasunak Eider Lago Jaiak eta Gazteria saileko zinegotziak eman ditu ezagutzera.

Azaldutako moduan, maiatzaren 10eko eta 11ko asteburua herriko elkarteentzat izango da, eta hilaren 15etik 18ra bitartean jaietako ekintza nagusiak egingo dira. “Iaz, herri-tarrek oso ondo hartu zuten formatu hau. Parte-hartze handia izan zen, eta jasotako iritziak, oso onak. Horregatik, aurten berriro errepikatzea erabaki dugu, arrakastatsua izan den eredua sendotzeko asmoz”. Zinegotziak aipatu duenez, egitaraua prestatzeko, jai-batzordeak harreman zuzena izan du herriko hainbat elkarterekin. “Haien parte-hartzea baieztatu, eta gogoz hartu dute berri ere jaiak antolatzeko aukera izatea. Horrek bultzatu gaitu aurrera egitera, iazko jai-formatu arrakastatsua oinarri hartuta. Herri-tarren eta

elkarteen ekarpenak funtsezkoak dira, Derio jaiak bizi-bizirik izan daitezkeen”.

Lagoren esanetan, herriko jai guztiak une paregabeak dira komunitatea indartzeko eta herri-tarren arteko harremanak sendotzeko. “Eta sanisidroak ez dira salbuespena. Helburua da jai-giroan guztiok disfrutatzea eta egun zoragarri batzuk igarotzea; hau da, ekintzetan parte-hartze handia egotea, egun hauetan jendeak ondo pasatzea eta antolatutako ekintzekin disfrutatzea”. Hortaz, ekintzak antolatzeko orduan, kontuan hartu dira herri-tarren aniztasuna eta jai-egitarauaren baitan adin-tarte guztientzako ekintzak egotea. “Programazio orekatua eta inklusiboa osatzen ahalegindu gara, haur zein gazte eta helduek gozatu dezaten.

Aurreko urteetako esperientzia, herri-tarren ekarpenak eta elkarteekin izandako elkarrizketak ere baliagarriak izan dira egitaraua osatzeko; haien parte-hartze aktiboa eskertu nahi diegu”.

ELKARTEAK

Elkarteen ekintzak goiz-goiz hasiko dira maiatzaren 10ean. Frontenis txapelketa egingo da, eta herri-azoka atonduko da kantxa estalietan. Bertan izango dira herriko elkarte eta taldeen erakusketak, tailerrak, artisau-azoka eta taloa, Hiru-ga folklore-taldearen musikak girotuta. Azokan hauek ipiniko dute stand informatiboa: Emaús, AMPA Txiki, Gure Señeak, Haszten elkarte, Euskaraldiko batzordea eta Marikobaso Espazioa. Gai-

LEIRE BEGOÑA
ULE-APAINDEGIA
MUNCIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32
Jarrai jarraitzu Facebooken

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku
ZERBITZU BERRIAK
Logopedia
Podologia
Krimasajeta
clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika
Txorierri etorbidea, 9 - Lortza | Arreaga eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 857 70 54 45
info@dentalezainduz.com | www.dentalezainduz.com

sarraila-denda
Txorierri
ADITUAK BARRALAGINTZAN ETA SEGURASAGIAN
946 038 663
625 100 800
info@cerajeriatxorierri.com
www.cerajeriatxorierri.com
Alain Pomposo Zarate
Urkiola, 4 lortza
48160 Derio

nera, Marrazten taldeko kideek aurkeztuko dituzte taldearen historia grafiko laburra, marrazki pertsonalak eta San Isidroren historiari buruzko hurbilpen marraztua. Era berean, Derioko euskararen erabilerari lotutako erakusketa egingo du Marikobaso Espazioak, eta Haszten elkarteak gorpildun aulkien zirkuitua atonduko du. DATeko kideak eguneko argazkiak ateratzen ibiliko dira, eta Tximintx komunitateak taloak egingo ditu. Horrezaz gainera, 22 postu inguru atonduko dira Derioko eta inguruko artisau eta eskulangileen azokan. Arratsaldean, Kukudantza, Piperdun eta Lainomendi dantza-taldeak kalejiran irtengo dira San Isidro elizatik, eta pintxo-potea egongo da herriko tabernetan.

Hurrengo egunean, kirol-azoka izango da kiroldegiko pistan, eta bertan hainbat joko eta ikastaro egingo dira hauen eskutik: Pozgarri, Miragarri, CD Derio, Txorierrri Basketland SK, Doyan eta Derio Kick Boxing. Eguna biribiltzeko, euskal dantzen agerraldia egingo du Lainomendik arratsaldean. Maiatzaren 15ean San Isidro da, eta aurten ere egitarau zabala antolatu da egun horretarako. Goizean, umeentzako tailerrak, puzgarriak eta jolasak egongo dira, baita marrazki lehiaketa ere. Arratsaldean, disko-festa eta Dúo Boleros taldearen kontzertua izango dira, eta jai-batzordeak potea egingo du herriko kaleetan zehar.

Maiatzaren 16an, hasiko da jaietako bigarren asteburua. Arratsaldean, Marabiyak Sound Systemek kalejira girotuko du Kultur Birikatik herriko plazara, eta ber-



Eider Lago, Jaiak eta Gazteria saileko zinegotzia.

“Jaiak elkartu, partekatu eta gozatzeko uneak dira: musikaz, kirolaz, umeentzako jardueraz eta tradiziozko ekintzez osatutako egitaraua prestatu dugu”

tan pregoia botako da. Aurten, Txepetxa AEK euskaltegia omenduko dute. Ondoren, txitxiburduntzia egongo da: Gure Señeak elkarteak prestatuko du, eta Sutondoan elkarteak banatu. Marabiyak Sound Systemek lagunduta, ibilbidea egingo da txosnaguneraino. Gauean, agertokira igoko dira Mixerabliak, Leihotikan, Bengo eta Dj Hmndk Etxera.

GOZATZEKO UNEA

Xaibor umeentzako disko-festa zapatuko lehen hitzordua izango da Sollube kalean. Aurreko urtean moduan, herri-bazkariaren formatua apur bat aldatu da eta paela-txapelketa antolatu dute. Izena ematea 12:00etatik 14:00etara egin beharko da jai-batzordearen txosnan, eta paellak 14:00etatik 14:30era bitartean aurkeztu. Herri-bazkaria 15:00etan izango da, eta txapelketan parte hartzen ez dutenek ere euren bazkaria eramateko aukera izango dute. Aulkia eta mahaiak erreserbatzeko txartelak (2 euro) Sugoi Bayron eta Adarve tabernetan ipiniko dira salgai maiatzaren 2tik 11ra. Bazkalostean, Odei Fernandezek egingo du bakarriketa, eta ondoren, paela-txapelketaren sariak banatuko dira. Irabazleak 150 euro eta bi botila txakolin jasoko ditu sarritzat; bigarrenak, 100 euro eta bi botila txakolin; eta hirugarrenak, 50 euro eta bi botila txakolin. Arratsaldean kua-drilla-txapelketa egongo da, eta Ipar Alde abesbatzak udaberriko kontzertua egingo du elizan. Bestalde, 19:30etik 21:00era musika-guneak atonduko dira Pakearen enparantzan, Urkiola aparkalekuan, Sollube

**ANIMAZIOAREN MUNDU HARRIGARRIAN
AMESTEN DUZUN GUZTIA ESKURA DUZU
IRRIKAZUREKIN!**

APAR-FESTA · PUZGARRIAK · ESKOLAKO JAIK
TAILERRAK · ROBOTIKA · DISKO-FESTA

irrikazu
ANIMAZIOA

irrika@irrikazu.com · 656 786 959 · 688 892 013
www.irrikazu.com

aldeko
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

—Especialitate guztiak
zentro bakar batean
—Aurrikuntza doan

—Especialitateak:
umeak

Urte 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

SQUAT
TRAINING CENTER

ENTRENAMITU PERTSONALA · LESIOAK · OPOSIZIOAK
ONLINEKO JARRAIPENA · KIROL ERRENDIMENDUA

Urkiola 4, Derio · squattrainingcenter.es · 686 917 409

kalean eta Besaide plazan. Gauean, oholdza gainean izango dira Marmie Takon derioztarraren drag showa, Lehian erromeria-talde eta Dj Victor Kordoba.

Domeka goizean, XXVII. Elikagai eta Eskulangintza Azoka egongo da Kultur Birikaren eta Uribe parkearen inguruan, eta arratsaldean “Erremontari herriz herri” jaialdia izango da frontoian. Piperdun eta Kukudantza dantza-taldeek erakustaldia egingo dute txosnaguneko oholdzan, eta, jaiei agur esateko, txokolatada egongo da San Migel jai-batzordearen eskutik. Lagoren hitzetan, jai-egitarau osoa pentsatuta dago herritar guztiek beren tokia izan dezaten eta jaiak guztiontzat gozagarri izan daitezzen. “Musikaz, kirolaz, umeentzako jardueraz eta tradiziozko ekintzez osatutako egitaraua prestatu dugu, eta guztiak dira interesgarriak. Azken batean, jaiak elkartu, partekatu eta gozatzeko uneak dira, eta helburua hau da: guztien gustuko zerbait egotea”.

Iaz moduan, jai-esparru nagusia kan-txa estalietan atonduko da, frontoiaren ondoan. “Bertan egongo dira txoanagunea, agertokia eta jarduera nagusiak, guztiak gune berean biltzen dituen eremu atsegin eta seguru batean. Gainera, kantxetako alboko aldea estaltzeko lanak egiten gabilta eta jaietarako egongo dira amaituta. Horri esker, euriak ez du eraginik izango eta asko hobetuko dira lekua-ren erabilgarritasuna eta erosotasuna. Hortaz, eguraldi txarra egonda ere, jaiak normaltasunez ospatu ahalko dira”.



“Guztion artean sortu nahi dugu jai-giro alaia eta errespetuzkoa, eta horretarako, ezinbestekoa da guztion jarrera arduratsua eta inklusiboa”

GUZTIENTZAKO JAIK

Derioko Udalak indarkeria matxistaren aurkako protokolo instituzional berria bultzatu du hainbat arlotako eragileekin lankidetzan. Protokoloa jaietan ere izango da indarrean. “Helburua da emakumeen eta LGTBIQA+ kolektiboko pertsonen aurkako indarkeria matxistaren aurrean erantzun koordinatua, azkarra

eta eraginkorra ematea. Eraso matxistarik jasanez gero, herritarrak Udaltzaingoarekin edo jaietako antolakuntzarekin ipini daitezke harremanetan, beharrezko laguntza eta babesa jasotzeko”. Bestalde, eta aurreko urteetan moduan, autobus-zerbitzua eskainiko da etxera itzultzeko. “Herritarrek oso harrera ona egin diote zerbitzuari, eta funtsezko baliabideztat jotzen dugu segurtasunari eta irisgarritasunari begira. Autobusa auzoz auzo ibiliko da gau osoan. Udalaren kan-al ofizialen bidez emango dugu zerbitzuaren inguruko informazio zehatza”.

Lagok azpimarratu duenez, San Isidro jaiak dira elkarrekin gozatzeko, barre egiteko eta oroitzapen politak sortzeko. “Guztion artean sortu nahi dugu jai-giro alaia eta errespetuzkoa, eta horretarako, ezinbestekoa da guztion jarrera arduratsua eta inklusiboa. Argi daukagu: ez dugu erasorik onartuko, ezta portaera desagokirik ere. Jaiak guztiontzat dira, eta guztion ongizatea eta segurtasuna bermatzea da gure lehenasuna”.

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com
DERIO - 946 451 781

ArtileArtean
Mungialde, 4 - DERIO
946 240 343 / 665 702 751
www.artileartean.com

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
Ogitartekoak
Etxeko azkenburukoak

Astelehenetik zapatara:
Lehen platera + edaria (8€)

Ondo pasa jaietan!

946 089 531 - Sollube, 2 DERIO

ISIDRO DEUNA 2025

MAIATZAK 10-25



10 Zapatua Sábado

- 9:00 Frontenis Txapelketa / Campeonato de frontenis
- 11:00-15:00 Herri Azoka / Feria popular
- 19:00 Kalejira KUKUDANTZA, PIPERDUN, LAINOMENDI

11 Domeka Domingo

- 11:00-14:00 Kirol jardunaldiak / Feria del deporte
- 18:00 Euskal dantzak LAINOMENDIrekin

15 Eguena Jueves

- 10:30-12:30 Umeentzako tailerrak / Talleres infantiles
- 11:00-13:00 / 17:00-19:00 Puzgarriak eta umeentzako jolasak / Hinchables y juegos infantiles
- 12:00 Meza / Misa
- 12:30-13:30 Marrazki lehiaketa / Concurso de dibujo
- 17:00-19:00 Disko festa
- 18:00 Marrazki lehiaketaren sari-banaketa / Reparto de premios del concurso de dibujos
- 19:00 Poteoa
- 19:30 Kontzertua / Concierto: Dúo Boleros

16 Barikua

Viernes

- 18:30 Herri Kalejira / Bajada popular
- 19:00 Marabiyak Sound System
- 19:00 Pregoia eta txitxiburduntzia
- 22:30 Kontzertuak

MIXERABLIAK
LEIHOTIKAN
BENGÓ
DJ HMNDK ETXERA

17 Zapatua Sábado

- 12:00 XAIBOR diskofesta (Sollube kalean)
- 12:00 Paella txapelketa / Concurso de paella
- 15:00 Herri bazkaria / Comida Popular
- 16:30 ODEI FERNÁNDEZ - Bakarriketa / Monólogo
- 17:30 Paella txapelketaren sari-banaketa / Entrega de premios del Concurso de Paella
- 18:00 Txitxarrillo
- 19:00 Kuadrilla txapelketa - Poteoa
- 19:30 IPAR-ALDE abesbatza
- 19:30-21:30 Musika-guneak herrian zehar / D.Js por el pueblo
- 22:30 Kontzertuak MARMIE TAKON
LEHIAN ERROMERIA
DJ VIKTOR KORDOBA

18 Domeka Domingo

- 10:00-14:00 XXVIII. Elikagai eta eskulangintza Azoka / XXVIII. Feria de alimentación y artesanía
- 17:00 "Erremontari herriz herri" jaialdia / Festival "Erremontari herriz herri"
- 18:00 PIPERDUN eta KUKUDANTZA dantza erakustaldia / Exhibición de baile
- 19:00 Txokolatada
- 20:00 Jai amaiera / Fin de fiestas

25 Domeka Domingo

- 08:00-09:00 XXXVII. Herri ibilaldia / XXXVII. Marcha Popular

Lekua Lugar

- Herriko plaza
- Kanta-atalak / Caschus indartas / Txerriagunea
- Kultur Birkia
- Puzkaribidea
- Frontois / Frontón
- Indio Deuna Eliza / Iglesia San Isidro
- Nagusiak Eliza

* Kanta-atalak eta Indio Deuna Eliza herriko eremuek. Gai jakinak gogoratu behar dira. Gai jakinak gogoratu behar dira.

Pakearen enparantza
Urkiola aparkalekua
Sollube kalea
Besalde plaza

DERIOKO JAIAK



FREEPIK / OUR-TEAM

T ITXASO MARINA

ERRENTA EUSKARAZ


Errenta-aitorpenen % 4,05 baino ez dira euskaraz egiten Txorierrin

2024ko errenta aitortzeko kanpainan gaude bete-betean, eta UEMA Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak kanpaina bat ipini du abian, herritarrek administrazioarekin dituzten harremanak euskaraz izan daitezen, eta, hortaz, errenta-aitorpena euskaraz aurkeztu dezaten. Kanpainaren ildoak azaltzeaz gainera, iazko datuak ere jakinarazi dituzte, eta horien arabera, Txorierrin 12.974 errenta-aitorpen egin ziren, eta gehienak gaztelaniaz aurkeztu ziren; euskaraz, % 4,05 bakarrik.

Zehatz-mehatz, 12.497 errenta-aitorpen aurkeztu ziren gaztelaniaz (% 95,95), eta 477, euskaraz. Herrietako datuei erreparatuta, Larrabetzu da euskaraz errenta-aitorpen gehien aurkeztu ziren udalerria: % 6,9. Guztira 1.223 errenta-aitorpen aurkeztu ziren bertan: 1.193, gaztelaniaz (% 93,1), eta 84, euskaraz. Bere atzean daude Lezama eta Zamudio. Lezaman 1.473 errenta-aitorpen aurkeztu ziren: 1.412, gaztelaniaz (% 95,9), eta 61, euskaraz (% 4,1). Zamudion, bestalde, 1.922 errenta-aitorpen egin ziren, eta 1.845 gaztelaniaz aurkeztu ziren (% 96), eta 77, euskaraz (% 4).

Gainerako herrietako datuei dagokionez, Loiu 1.338 errenta-aitorpen aurkeztu ziren: 1.294, gaztelaniaz (% 96,7), eta 44, euskaraz (% 3,3). Sondikan, 2.807 errenta-aitorpen egin ziren, eta 2.719 gaztelaniaz aurkeztu ziren (% 96,9), eta 88, euskaraz (% 3,1). Azkenik, Derion 4.211 errenta-aitorpen aurkeztu ziren: 4.088, gaztelaniaz (% 97,1), eta 123, euskaraz (% 2,9). UEMAk Bizkaiko datuak ere jakinarazi ditu, eta antzeko joera sumatu daiteke. Gure lurralde historikoan 675.677 errenta-aitorpen egin ziren iaz, eta 648.684 gaztelaniaz aurkeztu ziren, eta 26.993, euskaraz: % 96 eta % 4 hurrenez hurren.

UEMAk adierazi duenez, herritarrek errenta-aitorpena euskaraz egitera bultzatzeko kanpaina martxan ipini du bere kide diren udalekin eta foru-ogasunekin elkarlanean. “Errenta euskaraz egiten duen herritarren kopurua urterik urte gorantz egiten duen arren, oraindik urrun dago errealitate soziolinguistikoak erakusten dituen datuetatik. Horretan eragin nahi dugu aurrean ere, herritarrei administrazioarekin ere euskaraz egiteko deia eginez”. Jarraitu beharreko argibideak ere eman ditu, errenta-aitorpena euskaraz egiteko.



ARGIBIDEAK

Kanpainaren baitan azaldu duten moduan, zergadunak errenta-proposamena jaso eta onartzen badu, telefonoz zein Interneten bidez, euskaraz egin nahi duela esan behar du, “eta aurrerantzean Ogasunak euskaraz bidaliko dizkio agiriak”. Hitzordua eskatzen badu, Ogasunarekin euskaraz egin nahi duela adierazi behar du. “Horrela eskatuz gero, Ogasunarekin harremana euskaraz izan dezake, bai aurrez aurre, bai telefonoz zein Internet bidez. Ogasunak sinatzeko ematen duen orria ere euskaraz jaso dezake”. Azkenik, errenta-aitorpena Internet bidez egiten

bada, errenta-programaren euskarazko bertsioa jaitsi behar da, eta hobetsitako hizkuntza-atalean euskara aukeratu. “Aholkularitzaren bat aukeratzen bada, berariaz adierazi behar da aitorpena euskaraz egin nahi dela. Beste modu batean egiten bada, adibidez, finantza-erakunde batean, euskaraz egiteko eskatu daiteke”.

2024ko ekitaldiko aitorpena aurkezteko epea ekainaren 30era arte egongo da zabalik Bizkaian. Zergadunek hiru bide izango dituzte zalantzak argitzeko eta aitorpena aurkezteko: aurrez aurrekoa, telefonikoa eta digitala. Izapideak modu digitalean egiteko, www.bizkaia.eus

eus/errenta webgunera jo behar da, edo Renta Bizkaia Errenta aplikazioa erabili. Telefono bidezko arreta jasotzeko, berriz, 946 083 000 telefono-zenbakira deitu behar da lanegunetan, 08:30etik 19:00etara. Aurrez aurreko arreta nahi izanez gero, Foru Ogasunaren bulegoetara eta Aldundiaren Gertu bulegoetara joan behar da. Nolanahi ere, hitzordua eskatu behar da www.bizkaia.eus/errenta webgunean edo 944 066 600 telefono-zenbakira deituta. Aukeratzen duten bidea aukeratzen dutela, UEMAk errenta-aitorpena euskaraz egiteko deia egin die herritarrei.

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

SARRIKOLA OGITEGIA

Euskal pastela
Basemko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta

Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

Centro Dental
Txorierri

Rocío Astorkia Bordegaray
Col. nº 48000759

Ainhoa Rodríguez Mella
Col. nº 48001337

Igone Nieto Hernández
Col. nº 48001462

Mitxine 7. behea - 48150 Sondika
(geltoki aurrean)
Tfno. 944 711 639 - Larrialdiak: 670 985 885
www.cdttxorierri.es

ORTODONCIA21

**JOANES CAMARA**

Talde- eta komunitate-jarduerak kudeatzeko teknikaria

EMAUS

Bilboko Orkestra Sinfonikoari berriro egin diogu bisita

PAI Bitartean eguneko zentroan egunero ahalegin handia egingen dugu, inguruko eragileekin sareak osatzeko eta, hortaz, komunitate kohesionatuagoa eta fusionatuagoa lortzeko. Ganbara Gizarte Irratia da horretarako ditugun funtsezko erremintetako bat. Egitasmoa duela bost urte baino gehiago ipini genuen martxan, eta denborak aurrera egin ahala badabil fruituak ematen.

Horren adibide garbia da Foisisi, Itoiz taldeko gitarra-jotzaile mitikoari, egin genion elkarrizketa. Bere musika-ibilbide handia izan genuen hizpide, eta elkarrizketaren amaieran kontatu zigun Bilboko Orkestra Sinfonikoaren musikaria zela eta bertan kontrabaxua jotzen zuela. Era berean, entsegu orokor batera joateko gonbitea egin zigun, orkestra sinfoniko

bat ikusteko eta entzuteko esperientzia gozatu genezan. Emaúseko kideok ez genuen inongo zalantzarik izan gonbidapena onartzeko orduan, eta badira hiru urte haiek ikustera joaten garela.

Bisitak beti dira bereziak. Izan ere, musikak aldatuz doaz eta gonbidatutako artistek ukitu ezberdina ematen diote kontzertu bakoitzari. Ekitaldia non egingen den ere aipatu beharra dago: Euskalduna Jauregia. Mikel Bilboko Orkestra Sinfonikoaren langilea da, eta bere eskutik ezagutu eta ulertu ditugu lekuaren istorioa, eraikinak itsasontzi-forma zergatik duen eta beti harritzen gaituzten hainbat xehetasun.

Aurten, Tatsuya Shimono zuzendari japoniarraren lanaz gozatu dugu, zeinak orkestra maisukiro zuzendu baitzuen. Shimonoren zuzentzeko moduak eta

mugimenduek harritu gintuzten PAI Bitartean eguneko zentroko kide guztiok, eta entzun genituen melodiak ere aho bete hortz utzi gintuzten. “Hain gustura egon gara, ezen ez baikara konturatu denborak aurrera egin duela”, esan zuten batzuek. “Gehiagotan etorri behar dugu”, aipatzen zuten beste batzuek. Horrela, goiz polit-polita pasatu genuen sententzioa genuela, agur esan genion Bilboko Orkestra Sinfonikoari. Txaloaldi handia ere egin genuen, eta espero dugu orkestrako musikari guztiek jaso izana.

Beste behin ere, hurrengo gonbidapenaren zain gaude, aukera paregabear delako PAI Bitartean eguneko zentroan artatzen ditugun pertsonen harreman zuzena eta hurbila izan dezaten, besteak beste musikarekin, musikariekin eta hainbat instrumenturekin.

ILARGIAREN ALDIAK

Emakumeen osasun integrala



MARIA GARABIETA MARTINEZ
Emagia · @maria_garabieta



FREEPIK

O sasuna hitz zabala da, izan ere, ez dago definizio adosturik. Gainera, pertsona, kultura, profesional eta instituzio bakoitzak modu ezberdinean ulertu eta gorpuzten du kontzeptu hau. Bizi garen gizartean, konkretuki, osasuna gaixotasunik eza bezala ulertzen da; negarriak diren sintomarik gabeko egoera. Definizio hori hartuta, medikuntza alopatikoak bere funtzioa betetzen du: farmakoz, erradiazioz edo kirurgiaz tratatzen ditu sintomak edo gaixotasunak. Baina sukarrak ez izatea edo hezur guztiak osorik izatea bada osasuntsu egotea?

Osasun Munduko Erakundeak, adibidez, erabateko ongizate fisiko, mental eta sozial moduan definitzen du osasuna. Hau da, gorputz fisikoaz gain, egoera emozionalari eta sozialari ematen dio garrantzia. Psiconeuroinmunologiak, gorputzaren eta buruaren arteko loturak marrazten dituen zientzia berriak, bestalde, ikertu du emozioek gure nerbio-, immunitate- eta hormona-sisteman duten eragina, eta nola estresak gaixotasunak eragin ditzakeen. Osasuna definitzeko, antzinako medikuntza tradizionalek ere energia eta gorputza lotu dituzte beti. Eta ez hori bakarrik; elikadurak eta emozioek gorputzean eragiten dituzten sintomak ere deskribatzen dituzte.

Beraz, osasuna modu integralean definitzea ez da berria; orain arte izan dugun ulertzeko modua esnarazten gabe, besterik ez. Zertaz ari gara, orduan, emakumeen osasun integralaz hitz egiten dugunean?

Gure burua modu holistikoa ulertzea da gure osotasuna osatzen duten alderdi

ezberdinak kontuan hartzea, haien arteko lotura ulertuta. Gainera, zati bakoitza gainerakoekin duen erlazioan bakarrik ulertu daiteke, eta ez isolatuta. Gure burua osatzen duten zati guztiek armia-sare polita osatzen dute, eta guztiak garrantzitsuak dira, eta guztiak eragina dute gure ongizatean. Horrela, ezin liteke gure umetokiaren eta obulutegien funtzioa ulertu, gure elikadura-ohiturei arreta eman gabe. Gure lo-patroiak sistema hormonalaren erregulatzen du. Ingurumeneko toxikoen gure gibelaren funtzioa eragozten dute, hormonak desorekatuz eta, ondorioz, obulutegien funtzioa aldatuz. Lanean dugun rolak, amarekin dugun harremanak, nerabearoa nola eman dugun, eta bizitzan hartu ditugun antibiotiko edo farmakoek eragina dute gaur egun garen emakumearengan.

Gabor Maté doktoreak bere azken liburuan azaldu duenez, bizitzan izan ditugun traumak, bai txikiak, bai handiak, gure bizitza moldatzen dute. Edo Nicolas Olea doktoreak ikertu duen moduan, gizarte industrial honetako toxikoen emakumeengan dute eragin handiagoa, gure gorputzean estrogeno bilatzen baitira, eta horiek sintomak eta gaixotasunak sortzen dituzte.

Hamaika adibide eta ikerketa daude, eta hurrengo idazkietan sakonduko ditugu. Baina gauza bat argi dago: ez gara gorputz fisikoa besterik gabe. Eta hori ulertzeak desikaste-prozesu bat eskatzen du, nahitaez burujabetasuna dakarrena. Gure osasuna gurea da, gure prozesuak gureak dira, eta gure gorputzak, gureak.

HARATEGIA
ALBERTO
Arbolantxa, 4
Tel.: 944 520 825
48170 ZAMUDIO

Sondigarbi
GARBITEGIA
ITURRIGANE, 2
635584941
EGUNERO
8:00-22:00

Enaitz
TABERNA
Ogitartekoak
Anoak
640 26 84 15
94 455 42 15
Garaioltza, 74
Lezama



1 Martiartu



2 Errota

IÑAKI OLABARRIETA ETA JOSE ANGEL MENTXAKA

MENDITIK PATXADAZ Txorierri iparraldetik (I)

Txorierritik ibiliko gara oraingoan, bere iparraldeko mendilerrotik hain zuzen. Bi etapatan banatuko dugu ibilbidea. Lehenengoa Martiartun hasi, eta Artebakarran amaituko dugu, Erandio, Loiu eta Derio herrietan zehar ibiliz; azken bi herriak, ertz-ertzetik. Bigarren etaparako utziko dugu Larrabetzuraino heltzea. Etxetik hurbil egon arren, badago zer ikusi: dorretxeak, historia luzea duten ermitak, errotak, karobiak, bunkerrak...

Martiartun hasi dugu ibilbidea, dorretxe galantaren ondoan. Ematen ez badu ere, leku estrategikoa da hau, itsasotik, Getxotik, datorren arnaren buruan dago eta. XIV. mendean eraikia eta XVI. mendean berreraikia, 2,4 metroko hormak ditu, eta Butroi eta Martiartu leinuen arteko ezkontza baten ondoren altxatu zen. Berriztatu behar den arren, garai bateko itxura ederra badu oraindik Martiartuko dorreak. Ondoan San Antonio ermita dago, eta ate gainean duen armarrarian Martiartu, Asua eta Getxotarren armak daude. Goierrirantz doan errepedea hartu dugu, eta laster, ezkerretara, errota zaharra eta bertara doan harrizko ur-bidea ikusten dira. Apur bat aurrerago goazen bidea utzi, eta ezkerretara egin dugu, laster eskuinetara egiteko, beti errepidetik.

Aldapa nahiko gogorra igo ondoren, Andramariturra heldu gara. Bere izena duen iturria lokalizatu dugu; ez da erraza izan. Gaur egun nahiko egoera kaskarrean dago, baina beste garai batean urrunetik etortzen

zen jendea bertara edateko ura hartzera. Uribetik luzatzen den GR-280 ibilbideko markei jarraituz, aparkaleku handian errepedea utzi dugu, eta eskuinetik, egurrezko zubitik abiatu gara, eta jarraian ezkerretara biratu lurrezko pistatik gora. Gorantz goazela, bide ertzean, eskuinean, lehen karobia aurkitu dugu. Aurrerago GRa utzi, eta eskuinetara egin dugu. Laster eskuinetara doan bidezidor baten ondoan beste karobi bat dago. Bertan egon arren, ez da erraza topatzea. Batzuen ustez karea egiteko baino lehen burdina lortzeko erabiltzen ziren zulotzar hauek.

Gorago bistak ederrak dira, itsasotik Aizkorriaraino, eguna argia izanez gero. Laster ezkerretara haitz batzuk ikusi ditugu, buzoia dago gainean, Karabezu mendiaren tontorra da. Bertokoen esanetan tontorra karobi ondoan utzitako bidezidorretik aurrera dago. Aurrera egin, eta berriro GRaren markak aurkituko ditugu. Jarraituz, txaleten ondora helduta, ezkerretara aldapa gora hormigoizko pasillotik gora eginez, Unbe mendiko buzoia eta behatokia

daude. Bidetik aurrera eta behera eginez, Lauroetara heldu gara. Horma bakarreko frontoiaren ostean Arbilduko San Migel ermita dago. Horrek ere badu bere historia, Uribe merindadeko batzar-lekua zen eta. Merindade hori Basauritik Plentziaraino luzatzen zen. 1427an bertan, batzarrean zeudela, korrejidorea hil egin zuten bandokideen arteko borroketan. Bestalde, hiru apaiz euskaltzalek harreman berezia izan dute ermita honekin: Mikel Zarate, Xabier Amuriza eta Martin Orbe.

Beti markei jarraituta, errepedea gurtzatu eta hormigoizko pistatik gora egin dugu. Amaieran, alanbrezko hesia pasatuta, ezkerretik doan bidezidorra hartu dugu eta apur bat behera eginez, gerra garaiko bunkerra aurkitu dugu. Handia da, metrailadore habia osorik du, fusilekin tiratzeko leihatilak... Barrutik pasatu eta beste aldetik irten gara lehen utzitako pistara heldu arte. Mendi gailurretik jarraitzea besterik ez da falta, Txorierriko bista ederraz gozatuz, Artebakarrara heldu gara 11 kilometroko ibilbidea egin ostean.



3 Karobia



4 Karabezu




5 Lauroetako bunkerra

Ibilbidea

Distantzia: 11 km

Desnibel positiboa: 285 m

Eskuratu
hemen
ibilbidearen
track-a





WIKIMEDIA / ANRO0002

@TXIRIBITA_MUNDI

HERBARIOA

Zolda-belarra (II)

Symphytum officinale. Izen zientifiko hori eman zaio, hausturak, zauriak eta ultzerak osatzeko propietateak dituelako. Borrajen familiakoa da, eta erraz landatu daiteke lorategietan. Leku askotan belar txarra moduan hazten da

ERREZETAK

Dekokzioa. Sustrai freskoa erabiliko dugu. Hura ondo garbitu ondoren, ur irakinetan egingo dugu, kanpoko azala errazago kentzeko. Ondoren, xehatuko dugu. Nolanahi ere, sustrai freskoaren orde, sustrai sikua erabili genezake, oso dekokzio kontzentratua egiten badugu. Horretarako, ur litro bakoitzeko 200 g sustrai siku eta txikitu erabili behar dugu. Hogei minutuan irakin behar dugu estalkia duen kazola batean (ezin da ez burdinazkoa, ez aluminiozkoa izan), su motelean. Zauriak eta ubelak garbitzeko erabili dezakegu, edo konpresetan eta enplastuetan.

Baltsamoa. Zolda-belarraren sustraia erabili behar dugu oso ondo garbituta eta kanpoko azalik gabe. Fin-fin ebaki behar dugu, edo irabiagailuan xehatu. Sustrai freskoa erabili dezakegu, edo leku bero batean zenbait egunetan egurastu. Poto

batean nahasiko ditugu 50 g sustrai eta 250 ml olio; nahi izanez gero, hostoak gehitu ditzakegu. Potoa oiha batez estaliko dugu, eta goma batekin lotu. Ostean, Maria bainutan egosiko dugu, olio irakin barik, eta 60 minutuan-edo egingo dugu. Sua amatatu, potoa Maria bainutatik atera, eta trapu batez estaliko dugu harik eta hozten den arte. Bizpahiru astean izango dugu aire zabalean mazeratzen. Leku babestua izan behar du, adibidez, leiho batean. Mazerazioa azkarrago egin nahi badugu, potea Maria bainutan ipiniko dugu 90 minutuan eta etengabe eragingo dugu, olio gehiegi berotu ez dadin (tenperatura egokiena da 35-45°C). Sua zenbat eta motelagoa izan eta Maria bainuak zenbat eta denbora gehiago iraun, hainbat eta kalitate eta kantitate handiagoko produktua lortuko da.

Baltsamoa egiteko, olio iragazi behar dugu, eta hosto eta sustrai guztiak kendu.

80 ml olio eta 20 g erle-argizari nahastu behar ditugu; baskularik ez badugu, 4 zati olio eta zati bat argizari nahasi ditzakegu. Maria bainutan berotuko dugu, argizaria urtu arte. Sutatik kendu, eragin eta kristalezko potoetan sartuko dugu, ondo itxita eta etiketa ipinita.

Prestakina oso lagungarria da giharretako minak arintzeko eta zauriak orbaintzeko. Era berean, zauriak, erreduarak, ubelak eta hematoma osatzen laguntzeko erabili dezakegu, eta ekzemetak eta esku siku eta pitzatuetakarako. Animaliek ere erabili dezakete.

ORTUAN

Altxor handia da lorategietarako eta ortuetarako, erleak eta erlastarrak erakartzen dituelako, zeinek polinizazioan lagunduko baitute. Hostotza ugariak hainbat erabilera du, hala nola ongarri likidoa egitea eta konposta aktibatzea.

Ongarri likidoa. Bidoi batean –plastikozkoa edo beste material batekoa izan daiteke, baina ez metalezkoa– kilo bat zolda-belar fresko eta zatituta ipiniko dugu euri-ur 10 litro bakoitzeko. 10-15 egunean izango dugu beratzen, eta eguneror eragingo dugu deskonposizioa aktibatzeko. Nahasia belztuz joango da, eta hondarrak hondora joango dira. Hondar guztiak hondoa daudenean eta nahasia beltz-beltza denean, iragazi, eta likidoa uretan diluituko dugu (zati bat estraktu eta sei zati ur). Potasio-kantitate handiko ongarria da, eta oso gomendagarria da fruitua duten landare guztientzat: tomatea, marrubia, kalabazina... Dena dela, egokia da ortuko labore guztientzat, batez ere loraldian eta fruitua emateko sasoian.

KONTRAINDIKAZIOAK

Bakarrik erabilera topikoa egin behar da, substantzia toxikoak dituelako. Haurdun edo titia ematen daudenean ezin dute erabili, ezta gibealeko gaixotasuna edo arazoak dituztenek ere.

Landareak batzeko aholkuak

Orokorrean: hartu ondo ezagutzen duzuna; hartu neurritz eta soilik lekuan asko badaude; ez eraman dena, utzi beti zerbait; hartu bakarrik erabiliko duzun landarearen zatia; ez atera sustraitik, moztu ondo hazten jarrai daitezen; ez moztu loreen % 20 baino gehiago, zuhaitzak edo zuhaixkak badira; hartu bakarrik erabiliko duzuna, geroago itzuli ahal zara, edo beste leku batzuetara joan; ez jaso gune babestuetan edo parke naturaletan.

Non: larreetan eta autorik pasatzen ez den bide-ertzetan; goldatu gabeko basoetan; toxikorik erabiltzen ez den ortuetan eta lorategietan; INOIZ EZ areketan, fumigatutako landetan eta ibaiertz kutsatuetan.

Noiz: goizean, ihintza sikatu ondoren; hartu hostoak erabiliko ditugun egunean bertan; hartu loreak goizean eta sustraiak arratsaldean; landareak gorde edo sikatzeko, hobe da ilbehera denean jasotzea.

Materialak: eskularruak, artaziak, papezko oihalezko poltsa, zumezko saskiak...



WIKIMEDIA / BASILUS BESLER

TALDEA **GURENA**
ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

ZURE NEURRIRA



**BABESPEKO
APARTAMENTUAK**

**EGONALDIAK
EGOITZEAN**
egunean
gauean
asteburuetan

Unbe txiki bidea 9
LOIU 48180
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

944 530 049
www.gurena.com



SUKALDARITZA

Lezamako sukaldaritza ikastaroan egindako errezetak

Ajoarriero-krepeak otarrainxkekin



Osagaiak (20 anoa):

Litro bat krepe-ore
4 berakatza
400 g piperrada
2 g gelifikatzaile (agar-agar)
200 g azenario
4 g gatz
Kilo bat bakailao-solomo
20 cl olio
20 cl Bizkaiko erarako saltsa
200 g otarrainxka
12 g perrexil

Prestatzeko era:

Zartagin bat koipeztatu, eta krepeak bertan egingo ditugu. Gordeko ditugu. Ondoren, ajoarriero bakailaoa prestatuko dugu. Horretarako, berakatzek usaingozatutako oliotan konfitatuko dugu bakailaoa, eta pil-pilean egingo dugu. Bakailaoa nahastuko dugu

piperradarekin eta pil-pil eta Bizkaiko erarako saltsa apur batekin. Krepe bakoitzean ipiniko ditugu ajoarrieroa eta otarrainxka bat. Azken hori zurituta eta salteatuta egongo da. Krepeari bilkari-itxura emango diogu. Krepeak koipeztatu, eta aluminio-paperez esta-

liko ditugu berotzeko. Berotu ostean, plater batean ipiniko ditugu: mahai-kide bakoitzeko bizpahiru krepe ipini ditzakegu. Platerean, Bizkaiko erarako saltsa ere ipiniko dugu, eta dekoratzeko erabiliko dugu perrexila eta azenario frijitua eta juliana eran txikitua.

Krepe-orea

Osagaiak

Litro bat esne
400 g irina
10 g gatz
150 g gurin
8 arrautza
4 cl brandy

Prestatzeko era:

Esnea gurinarekin batera berotuko dugu, harik eta azken hori gurtzen den arte. Irinarekin sumendia egingo dugu, eta erdian ipiniko ditugu gatz, arrautzak eta brandya. Gero, esnea gehituz joango gara, eta hagaxka bat erabilita modu bizian eragingo dugu nahasia homogeneousatzeko. Iragaziko dugu pikorrak kentzeko.

Piperrada

Osagaiak:

400 g kipula
16 cl olio
1,6 g gatz
400 g bider berde
400 g piper gorri
8 cl tomate-saltsa

Prestatzeko era:

Kipula juliana eran txikitu, eta bigunduko dugu. Ondoren, piper berdeak frijituko ditugu. Uretan hoztuko ditugu, zuritu, eta tira meheetan ebakiko ditugu. Bestalde, piper gorria labean egingo dugu 180 gradutan. Labetik atera, eta hozten utziko dugu (estalita). Hozten denean, zurituko dugu eta tira meheetan ebakiko dugu. Barazkiak nahastuko ditugu, eta nahi izanez gero, tomate-saltsa apur bat erabiliko dugu.

Bizkaiko erarako saltsa

Osagaiak:

200 g kipula more
30 g sagar
0,4 g gatz
20 cl salda
4 txorizo-piper
5 g ogi
1 cl olio

Prestatzeko era:

Kipula bigunduko dugu oliotan. Txorizo-piperrak gehituko ditugu (aurretik hidratatuak), eta ondoren, sagar txikitua. Sueztituko dugu. Ondoren, salda botako dugu, eta ogia gehituko dugu saltsa loditzeko. Minutu batzuetan egosiko dugu. Ostean, saltsa xehatuko dugu, bahetu, eta berriro egosiko dugu. Gatz botako dugu.

DENBORA-PASAK

Lagundu oiloei oilotegirako bidea aurkitzen.



SUDOKU ERRAZA

			9	2				
	4		8	5	1			
2	5	6			3		9	1
1				8	5	4		9
	9	8	7	3		1	6	2
			2			5	3	
		7		6		9		
9					2	6	8	
	8			9			5	4

SUDOKU ZAILA

			5		3			8
2		4		6			9	
	1							
	7						5	
5		1			6	3		
	9			1				
			2			9		
7								
6		5		4			2	

MAIATZEKO AGENDA

2, barikua

**Dirulaguntzak: kiroldegietako abo-
nuak eta putzu septikoak garbitzea**
LEZAMA Eskabideak, maiatzaren
30era arte udal-bulegoetan.

3, zapatua

12:00 **Bizkargi Eguna LARRABETZU**
Bizkargi Igoera, bazkaria eta Eguen
Bakoitiak taldearen kontzertua

4, domeka

17:00 **Bizkargi Eguna LARRABETZU**
Txosna, ekitaldia, taloak eta
Kittu erromeria-taldea

5, astelehena

Izena ematea: Haurgune eta uda
txikia (2014-2021) **LEZAMA** Online:
hilaren 5eko 16:00etatik hilaren 16ko
19:30ak arte

Izena ematea: Uda gaztea (2011-
2013) **LEZAMA** Online: hilaren 5eko
16:00etatik hilaren 16ko 19:30ak arte

Izena ematea: Arantzako udalekuak
(2009-2012) **LARRABETZU** Anguleri
kultur etxean, maiatzaren 14ra arte

Izena ematea: Arbizuko udalekuak
(2013-2015) **LARRABETZU** Anguleri
kultur etxean, maiatzaren 14ra arte

Izena ematea: udalekuak (2015-2021)
LARRABETZU Anguleri kultur etxean,
maiatzaren 14ra arte

6, 8, 20 eta 22

18:00 **Tailerra: danbor-banda femi-
nista** **LEZAMA** Uribarri Topalekuan
berdintasuna@txorierri.eus / 688 654
649

6, martitzena

19:30 **Hitzaldia: Herri libre bat. Euskal**
**Herriak erabaki, Gure Eskuk antola-
tua LARRABETZU** Ludoteka gaineko
solairuan

7, eguaztena

18:30 **Zaintza: esperientzien plaza**
LARRABETZU Ludoteka gaineko
lehen solairuan

9, 10 eta 11

Hori Blaituz LARRABETZU Informa-
zioa: 22 or.

9, barikua

19:30 **Dokumentala eta solasaldia:**
Alex Txikonen Mendi biluzia LOIU
Lauroetako ermitan

10, 11, 15, 16, 17 eta 18

San Isidro jaiak DERIO
Informazioa: 24-27 or.

10, zapatua

13:30 **Gazte Eguna LOIU**
Poteoa, bazkaria, kontzertuak

13, martitzena

18:15 **Kontzertua: Musika Eskola**
LARRABETZU Anguleri kultur etxean

14, eguaztena

18:15 **Kontzertua: Musika Eskola**
LARRABETZU Anguleri kultur etxean

15, eguena

Baserritarren Eguna: ibilaldia eta
bazkaria LARRABETZU
Izena ematea: maiatzaren 9a
baino lehenago, udal-bulegoetan
edo Anguleri Kultur Etxean

12:00 **Baserritarren Elkartearen 100.**
urteurrena LEZAMA Informazioa: 16-
17 or.

19:00 **Literaturaz Berbetan: Nerea**
Loiolaren Zebrak eta bideak liburua
LARRABETZU Ludoteka gaineko
solairuan

17, zapatua

Kuadrilla Eguna LARRABETZU

19, astelehena

18:30 **Zaintza: esperientzien plaza**
LARRABETZU Ludoteka gaineko
solairuan

20, martitzena

19:00 **Zinekluba: film laburrak eta**
solasaldia LARRABETZU Ludoteka
gaineko solairuan

29, eguena

19:00 **Performancea: Maialen**
Lujanbioren eRRezitala LARRABETZU
Hori Bain

30, barikua

19:00 **Kontzertua: Musika Eskola**
LARRABETZU Elizan



Whatsapp kanal berria,
albisteak jasotzeko

Sartu **labur.eus/aikorkanala** helbidean

Sakatu **Jarraitu**, albisteak jasotzeko

Sakatu kanpaintxoa 🔔, eduki berria
dagoenean jakinarazpena jasotzeko



STIHL

KARGARIK HANDIENA UDABERRI HONETAN

EXIJENTZIA HANDIKO PERTSONENTZAT



BESTE BATERIA BAT DOAN

AUKERATUTAKO
EREDUETAN



489€ -RA ARTEKO
AURREZPENA



ASTIKENE industrialdea, Berezi 23C
(Bilboko aireportuaren ondoan)
48160 DERIO BIZKAIA

info@agrojardinastikene.com
www.agrojardinastikene.com
944 540 652  688 633 197

AI 

AS 
SYSTEM

AK 
SYSTEM

AP 
SYSTEM